

Patxi Uribarren Leturiaga
Euskaltzaindian sartzea

Aramaio, herriko parrokia-eliza, 2010-V-28

Ondoetorria

AGIRRE, Asier
Herriko alkatea

Arratsalde on eta ongietorri Aramaiora, Euskaltzain guztiok eta herritar nahiz kanpotik etorri zaretenok.

Baina gaurko egun honetan ongietorri berezia luzatu nahi diot herri osoaren izenean, Patxiri, Esteban eta Karmenen semeari, Aramaioko seme kuttunari.

Ongietorri ba, eta guztion partetik zorionak!

Etxanen (Etxaguen) gau eskolekin hasi zinenetik urte batzuk igaro dira, ezta? Ba begira, harri bitxi bezala gordetzen dugu Udaletxean 1973an eginiko lan bat, argitaratu gabea, seguruenik oso gutxik ezagutzen dutena, eta bertan jartzen duen bezala «gure euskara eta kultura aberasteko asmotan eginikoa»... Bai, batzuk igarriko zenuten Aramaioko lehendabiziko toponimia bilketaz ari naizela, Patxi Uribarrenek eginikoa, lizentziaturarako azterketa lan bezala.

Urteekin, jakinduriaz, espezializatzen joan zara eta goimailako emaitzak eskaini dizkiguzu; horra hor *Gogoz* eta *Karmel* aldizkarietan egin dituzun kolaborazioak edota *Bostak bat Kultur elkartearekin* argitaratutako hiztegiak, adibidez. Badakigu gainera Aramaioko herriak behin baino gehiagotan primizian jaso dituela lan horiek, zuri esker!

Aramaiotik kanpo, Etxan (Etxaguenen) zure auzotik kanpo, asko ibilia zara, baina beti izan duzu Aramaio herriarekin lotura estua. Sarritan ikusten zaitugu hemen, familia bisitatzera etorria, ospakizunetan, eta abar. Zure

sarrera-hitzaldia hemen, Aramaion egiteak ere badu esanahai berezia zuretzat, badakigu, baina baita guretzat ere, herri osoarentzat.

Euskararen alde egin duzun lanak aditu bihurtu zaitu, eta merezi duzun tokia egin dizute Euskaltzaindia bezalako erakundean, miresgarria da benetan! Zorionak, horregatik!

Eskerrik asko, gainera, zure izenarekin batera Aramaio izena ere zabaldu duzulako, herri euskaldun bezala, Euskal Herrian eta hemendik kanpo. Harro gaude lortu duzunarekin eta harro gaude gaur hemen gu guztiok bildu gaituzulako: zure lankideak, familiartekoak, lagunak, eta zenbait herritar.

Mila esker denoi eta gehiago luzatu gabe, nire ondotik datozeinei hitza ematea baino hobetik ez.

Egun emankorra izan dezagula,

Agurra

URRUTIA BADIOLA, Andres
Euskaltzainburua

Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailburua,
Nafarroako Gobernuko Euskarabidearen burua,
Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura diputatua,
euskaltzainak,
Patxi Uribarrenen etxeakoak,
karmeldarrak,
Karmel aldizkariko adiskideak,
Aramaioko alkatea eta zinegotziak,
aramaioarrak,
jaun-andreak,
Arratsaldeon.

Oraindik gogoan dut mila bederatziehun eta hirurogeita hamabigarren urteko irudia, Bilbon, Karmeloko gau-eskolan. Hizlari, Patxi Uribarren eta Karmel Etxebarria. Entzuleen artean, orain hitz egiten ari zaizuena. Gaia, euskararen irakaskuntza antolatzeke modua. Hitz laburrak entzun eta gero, bakoitza bere ikasgelara, Xabier Kintana izeneko batek *Ukronia* izenburua-rekin idatziriko ipuina irakurtzera, ariketa legez.

1984. urtean, aldiz, *Karmel* aldizkariaren idazleek bilera egin genuen Zornotzako Larrean. Horra nire bigarren irudia Patxi Uribarrenena, Julen Urkizaren zuzendaritzapean.

Gero, etengabeko harremanak izan dira bion artean, eta, argi dezadan, beraren ingurukoekin ere: Luis Baraiazarrarekin eta *Karmel* aldizkariaren beste idazleekin. Azpimarra ditzadan, orobat, Bizkaiko Foru Aldundian egin duen itzultzaile-lan bikaina, eta bere zereginak lexikografiaren arloan, *Bostak Bat Kultur elkartearen* barruan.

Patxi, bestalde, euskal idazle arabarren eta aramaioarren zerrendan sartzen da bete-betean, lurralde horrek euskararekin duen konpromisoa berretsiz.

Ezin bazterrean utzi, nolana ere, Patxiren jokabide etikoa eta haren kristau-bokazioa, bi-biak egoki uztartzen jakin baitu gure Patxik.

Euskaltzaindiak aspalditik ezagutzen du Patxi Uribarren euskaltzain ur-gazlea. Orain bera aitortu egiten du eta euskaltzain oso bihurtu, ziur gaude-lako haren ekimena eta gizalegea, onuragarriak ez ezik, eredugarriak ere izango direla Euskaltzaindiarentzat eta euskalgintzarentzat.

Mila esker, amaitzeko, Aramaioko herriari, betidanik euskarari, euskal kulturari eta Euskaltzaindiari eskaini eta eskaintzen dion harrera gozo bezain beroarengatik. Beste horrenbeste Aramaioko parrokiari, gaur eliza eder hau ekitaldia egiteko uzteagatik.

Orain joan bitez Sagrario Aleman eta Miren Lourdes Oñederra euskaltzain osoak, eta ekar bezate guregana, sarrera-hitzaldia egin dezan, Patxi Uribarren jauna.

Izan zirelako gara, eta garelako izango dira

URIBARREN LETURIAGA, Patxi
Euskaltzain osoa

Jaun andreok: agur t'erdi.

Bihotzez agurtzen zaituztet Euskal Herriko zazpi probintzietatik Aramaioko ekitaldi honetara etorri zareten guztiok, nire mintzaldi, berbaldi, hitzaldi, prediku edo sermoi honi hasiera eman aurretik.

Euskaltzaindiaren ohiturari jarraituz, lehenengo, aukeratua izan nintzenetik betetzen dudana aulkia bete izan zuen **Henrike Knörr Borràs (1947-2008)** jaunari buruz mintzatuko naiz.

Euskaltzaindia 1919an Euskal Herriko euskalki eta lurralde guztiak ordezkatzeko asmoz sortua izan ostean, urte horretako irailaren 21ean aukeratu zuten Arabako ordezkari izateko jakituria handikoa zen **Raimundo Olabide Carrera**, gasteiztar euskaldun berria, hain zuzen ere, Euskaltzainen arteko 11. aulkia betetzeko.

1942an atzerrian hil zenean, haren lekua betetzeko Aingeru Irigarai jauna izendatu zuten, Araba ordezkari gabe geratuz. Eta horrela 1975ean, Antonio Arrue jauna hil zenean Henrike Knörr Borràs jauna izendatu zuten arte. Honek Antonio Arrue jaunaren aulkia bete zuen, hau da, 18.ena. Hori izango da nik, Hernrike

* * *

Knörr jaunaren ordeza aurrerantzean izango dudana.

Henrike Knörr Borràs Tarragonan jaio zen. Zazpi urte zituela Gasteizera etorri eta euskara ikasi ondoren, euskaraz irakasteko urratsak eman

zituen. 1975ean euskaltzain urgazle izendatua izan zen, eta handik bi urtera euskaltzain oso. Filosofian lizentziatua, Euskal Filologian Doktorea eta Euskal Unibertsitateko katedraduna izan zen. Gasteizen Euskal Filologia abian jartzeko lanetan parte hartu zuen. Gero, urteetan bertako irakasle izan zen heriotza-egunera arte. 1977an Euskaltzain oso izendatu zutenetik, etengabeki jardun izan zuen euskararen alde lanean Euskaltzaindian nahiz bertatik kanpo.

Oso zaila da Henrikek burutu zuen lanaren laburpena egitea, oso handia eta ugaria izan zelako! Antzinako jakintsuek izan ohi zuten jakintza enziklopedikoaren jabe zela esanaz laburbilduko nuke. Bera izan dugu azken mende erdi honetan Arabako euskararen lekukorik eta eragilerik nagusia.

Sancho el Sabio Fundazioak argitaratutako Henrike Knörr-en bibliografian honako datu hauek eskaintzen zaizkigu: 38 liburu idatzi zituela, eta beste 23 liburutan partaide izan zela. Horrez gainera 227 idazlan baino gehiago idatzi zituela, horietatik 79 Euskaltzaindiaren *Euskara* Agerkarian, Euskaltzaindiari begirune eta fideltasun handia erakutsiz.

Ezagutu zenuten guztiok dakizuenez, jendearekin harremanetan jarduteko aparteko dohainak zituen. Hori zela-eta hartu zuen parte hainbeste jardunaldi, kongresu, nazioarteko bilera eta halakoetan. Hizkuntzen ezagutzak ere ateak irekitzen zizkion horretarako guztirako. Oso aditua zen, besteak beste, Onomastika eta Toponimia alorretan. Euskaltzaindian hainbat kargu izan zituen. Buruordea ere izan zen 1996an. Urteetan zehar nabaria izango dugu Araban hark utzitako hutsunea.

Nik, Enrike Knörr jauna, politika alorreko jardunean ezagutu banuen ere, 1977tik aurrera harreman estuak izan nituen berarekin, batez ere Bilboko Irakasle Eskolan irakasle lanetan ibili nintzenean. Beraren eta beste askoren ahalegin handiz Gasteizen sortu berri zen Euskal Filologiako Fakultatera eraman nahi izan ninduen, baina garai hartan, Irakasle-Eskolako lanez gainera, 1.000 ikasle inguru biltzen zituzten Santutxuko gau-eskolen ardura nuen, eta ezinezkoa nuela erantzun nion.

Geroago, bide desberdinetik ibili ginen. Bera Unibertsitatean eta ni Bizkaiko Foru Aldundiko itzultzaile lanetan. Eta, nola ez, gutxitu egin ziren

harremanak ere. Hala ere, urtean zehar hainbat alditan elkar ikusten genuen, batez ere Euskaltzaindiko ageriko ekitaldietan.

Henrike Knörr Borràs jauna, hemen, Aramaion, gogoratzean, bestalde, ezin aipatu gabe utzi hark herri honi zion begirunea eta maitasuna. Ahalegin handiak egin zituen Unibertsitatearen udako ikastaro trinkoak hona ekartzen. Irakasle ere izan zen ikastaro horietan.

Beraz, nire esker ona agertu nahi diet zuen aurrean berari eta bere familiakoei, neure eta Aramaioko herriaren izenean.

* * *

Izan zirelako gara, eta garelako izango dira

Hitzaldi honek euskarari buruzkoa izan behar duenez, eta Euskaltzaindiaren helburua euskararen normalizazioaren eta iraupenaren arduraz izanik, egokitzen jo dut transmisioari buruzko gogoeta batzuk egitea.

Joan zen urtean, Euskaltzaindiaren 90. urteurrena zela eta, Arabako Aldundian izandako hitzaldi laburrean, honako hau gogoratu nuen: «Beste zerbaite ere gogora ekarri nahi nuke, arloa aztertzen hasi aurretik, hots, “gizakiok une eta toki zehatz batzuetan bizi izaten garelara”, eta, horrek sakonean baldintzatzen duela gure ibilbide historikoa. Tokiak eta uneak izugarritzeko eragina izan ohi dute bizitzan eta, zer esanik ez, izan du eta du euskararenean ere. Egin-eginean ere, euskara, une historiko batean lurralde zehatz batean bizi izan den gizakiaren komunikabide tresna garrantzitsua dugulako.

Guztiok dakigu, euskararen ibilbide historikoa Euskal Herriko Herrialde desberdinetan mamitu izan dela historian zehar, hainbatean lurralde bakoitzak dituen berezitasunek baldintzatuta. Hori horrela, Arabako euskararen historia ere bertako geografiak eta bilakaera historikoak baldintzatuta ageriko zaigu. “gizakiok une eta toki zehatz batzuetan bizi izaten garelara”», eta horrek baldintzatzen duela gure bizitza gogoratu nuen. Izan ere, lurralde bakoitzeko geografiak eta demografiak baldintzatuta izaten da. Aramaion ere hala gertatu dela uste dut.

Beraz, gogora ekar dezagun edozein hizkuntzak, bizirik iraun ahal izateko, ezinbestekoak dituela lurraldea eta gutxieneko hiztun kopurua. Faktore bi

horiek baldintzatzen dute bere ibilbide historikoa. Honetan, adibiderik argiena, latinarena dugu. Hitzun kopuru handia izan, eta mendeetan goimailako zereginetan bizirik iraun arren, lurraldetasuna galtzean gainbehera etorri zen. Esperantoaren kasua ere antzekoa dugu. Lurralderik ez izatean, ahaleginak egin diren arren ez du gizartean errotzerik lortu.

Gai hau aukeratzera MENDEBALDE Kultur Elkarteak 2009an Bilbon antolatutako XIII. Jardunaldian eskaini zigun «Transmisioa eta erabilerea» mezuak bultzatu ninduen. Bertan, besteak beste, hizkuntzaren transmisioa, pertsonon bizitzako hiru unetan gauzatzen dela gogoratu zitzaigun: hots, etxe-auzoko bizitzan, ikasketa-garaian eta lan-munduan. Hori horrela, nire bizitzako momentu zehatz batzuk kontuan izanik jardungo dut.

Bestalde, psikologiak diosku pertsonon izaera, zeharo taxututa edota finkatuta geratzen dela, hainbatean, sei, zazpi edo zortzi urte bete orduko. Hau da, bizitzako lehen urte horietan jartzen ditugula gure geroko norabideen oinarriak. Adin horretan bideratuta geratzen omen da, gure nortasuna. Hortik, txiki-txikitako urte horiek duten garrantzia!

Guzti hori kontuan izanik, nire jardun honetan Aramaioko nire jaioterrian euskarak azken mendean egin duen ibilbide luzeko ikuspegi zabala jarri nahi dizuet aurrez aurre: **nondik gatozen, non aurkitzen garen, eta norantz goazen**. Eta hori, ekitaldi hau berba gozoetan, asmo ederretan edota elkartasunezko harreman hutsetan gera ez dadin.

Eta, hasteko, Felipe Arrese-Beitia olerkariaren harako olerki ospetsuko lehen ahapaldia aipatu nahi dut, oso egokia baita hemen gauden askoren bizitzako ibilbideak argitzeko:

Euskaldun jaio nintzan,
Euskalduna azi,
Euskara utsik amak
Eustan irakatsi;
Euskara maite maite
Zabiltz neugaz beti,
Euskara ill ezkeru
Ez dot gura bizi.

Zerbait gehiago (fedea) ezarriko nioke nire kasuan. Olerki honek betebetean laburbiltzen du nire bizitza, eta dudarik gabe hemen gaur nire ondoan bildu zareten askorena ere bai. Azken batean euskarak bildu gaituelako hemen Euskal Herriko Herrialde guztietako jendea. Euskara dugulako Euskaltzaindiaren izaeraren zergatia. Euskarak definitzen duelako gure herria «Euskal Herria».

1. Aramaio: kokapen geografikoa eta euskara

Gorago esan dut «pertsonok une eta toki zehatzetan bizi izaten garela». Beraz ezinbestekoa dugu, binomio horren inguruan dantzatzea. Izan ere, toki geografiko eta denbora historiko zehatzean bizi izate horrek baldintzatzten ditu, hainbatean, egunetik egunera hartu ohi ditugun bizitzako erabakiak eta jardunak.

Ez da, baina, nire asmoa Aramaiori buruzko datu geografiko edo historikoetan kateaturik mataza nahasia askatu ezinda jardutea. Ezta bertako euskarari buruzko datuetan nahastea ere.

1.1. Kokapen geografikoa

Aramaio honela agertzen zaigu Udalak plazaratutako mapan:

Populazioaren banaketari buruz, gogoan izan behar dugu Aramaioko udalerrria 9 auzok osotzen dutela, zenbait auzotan entitate txikiagoak, auzuneak deituak ditugularik. Kanpotarrak harriturik geratu ohi dira auzoetan elizaren ondoan kanposantuak ikusterakoan. Baina hori antzinatik datorren zerbait dugu, hau da, elizateak izatean. Antzinako antolamendu bereziaren hondarrak dira.

Hori horrela, ez da harritzekoa, Bizkaiko hainbat herritan ez bezala, Aramaion, mendez mende, gaur egun arte, inolako etenik gabe *Bizkaiko foruak* indarrean izatea. Oso laburpen interesgarria egiten du *Aramaioko euskara* liburuaren sarreran Txipi Ormaetxeak ere, daturik esanguratsuenak eskainiz.

Halako datu batzuk gogora ekarri nahi ditut, asko direlako oraindik Euskal Herrian zehar Aramaio non dagoen edota herri euskalduna dela ez dakitenak. Niri ere, hainbatetan jazo izan zait, arabarra eta jaiotzatik euskalduna naizela esatean, harriturik ea Araban halako herririk dagoen galdetzea. Gehienetan, hain ezagunak ditugun Arrasate, Anboto, Urkiola, Otxandio aipatuz azaldu behar non kokatzen den herri hau.

Udaleko laburpenean aipaturiko auzo guzti horien artean Ibarra ekarri behar dugu gogora. Eta ez bakarrik gaur egun populazio-multzorik handiena bertan delako, hainbatean Aramaio osoko euskararen historia baldintzatu duelako baino. Aramaioko auzoetako bideak, *Untzilla* auzoa apartetxo geratzen dela, *Ibarran* batu izan dira azken mendeetan. Horrek ekarri du udala kokatzen den auzo honen nagusitza administratiboa eta estrategikoa.

Baina, ez bakarrik hori. Hemeretzigarren mendean hasi, eta hogeigarrenean indarrean izan den irakaskuntza-gune nagusia ere *Ibarra* izan da. Beste auzoetan ez zegoenez eskolarik Ibarra zen zentro bakarra. Bertan batzen ziren auzo guztietako ikasleak. Horrek, jakina, immigrazio handirik izan ez arren, aldian-aldian gaztelania indartzea eta euskarari langak jartzea ekartzen zuen. Bertan, Gipuzkoako mugan izatearen ondorioz, gerra ostean urteetan zehar kuartel handi bat egotea ere, herria erdalduntzeko bide gertatu izan da.

Laburbilduz, Aramaio, historian zehar, Arabatik Gipuzkoara eta Bizkaira joateko bidegurutzea izan dugu. Lehenago harreman estuagoak izan zituen Bizkaiarekin, eta bertako foruak gaur arte indarrean izan ditu. Une honetan lotura estuagoak ditu Gipuzkoako Debagoieneko herriekin.

1.2. Euskara mota

Txipi Ormaetxea hizkuntzalariak bere *Aramaioko euskara* liburuan, bertako euskararen berezitasunik nagusienak eskaintzen dizkigu, eta honako hau diosku:

«Ez dago zalantzarik: Aramaioko euskara gaur egun mendebaleko euskara deitzen den euskalkian sartu behar dugu. Edo orain arte deitu izan den bizkaiera euskalkian».

Liburu horretan, Aramaioko azpieuskalkia bizkaieraren edo mendebaldeko euskararen Debarroko azpieuskalkiaren barruan, Debagoiena osotzen duten herrieekin (Oñati, Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate) bat eginda ageri da. Behar bada, Aramaioko euskarak badu beste lehengusu txikiren bat edo beste Debarrotik kanpo ere. Esaterako, interesgarria genuke Aramaioko euskara eta Markina aldekoa konparatzea. Nire uste apalean Debarrotik haratagoko loturak ditu bertako azpieuskalkiak.

Debarroan hiru multzo ageri dira: Aramaio barru duen Debagoiena (Oñati, Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Aramaio), Debaerdikoa (Antzuola, Bergara, Soraluze, Eibar, Elgeta, Ermua eta Zaldibarko Eitzaga auzoa) eta Debabarrena (Elgoibar, Mendaro eta Mutriku). Beste zerbait ere esaten digu:

«Beraz, Aramaioko euskara ondoan dituen Gipuzkoako herrietako euskararekin dator bat, nahiz eta desberdintasunak ere badiren».



Ikerketa sakona egiten duen arren, ez dugu oraindik Aramaioko euskarari buruzko lan osorik. Horretarako, aipatutako lan horretaz gainera, Pedro Pujana eta Pedro Irizar jaunek egindako aditz-bilketak, Gotzon Garatek bertan jasotako datu ugari eta interesgarriak, *Euskararen Hizkuntza Atlas*a prestatzeko bertan burututako grabaketetako datuak, toponimiak eskaintzen dizkigun zenbait argigarri, Gabirel Jauregiren euskara, eta beste hainbat berri bildu beharko ditugu.

Oletako kasua, bestelakoa da. Oso interesgarria, gainera. Aparteko garrantzia du bertako euskarak, Otxandioko eta Ubidekoarekin batera, antzinako Arabako lautadako euskararen lekuko bakarra dugulako. Orain bertan egiten den euskara eta antzinako idatzizko testigantzak konparatuz iluntasun asko argituko genituzkeela uste dut. Beraz, beranduegi izan baino lehen zerbait egin beharko dugu bertan.

2. Euskararen XX. mendeko ibilbidea Aramaion

Aurreko datuak abiapuntu ditudala, eta hizkuntzaren transmisioa une eta toki historiko zehatzetan gauzatzen dela kontuan hartuz, euskarak hogeigarren mendean Aramaion (**gainbarrua** deitzen dugun alde honetan) egin duen ibilbideari buruzko datu nagusiak gogoratu nahi ditut lan honetan. Ikuspegi orokorra eskainiko dizuet ez dugulako gehiagorako astirik.

2.1. Gerra aurreko egoera

Aramaion, Euskal Herriko beste zenbait herritan bezala, euskara izan da bertako berezko hizkuntza. Bertako seme-alabak euskaraz bizi izan dira. Horrela izan zen hogeigarren mendeko erdialdera arte. Hala ere, ondo badakigunez, hemeretzigarren mendean erdal eskolak abian jarri zirenetik, bertako heziketa eta administrazio-harremanak gaztelaniaz burutu izan dira oraintsu arte. Hori horrela izan arren, irakaskuntzak ez zuen gaur egun duen garrantzirik. Ezta antzekorik ere.

Gasteiz inguruko herriak, hiriburuaren eraginez, XIX. mendearen erdialdean hasita, erdaldunduz joan ziren arren, Aramaiok euskaldun izaten jarraitu zuen. Hainbatean, jendea elizateetan biritzeak ateak itxi zizkiolako erdarari. Elizate horiek garrantzi handia izan zuten historian zehar.

Alderantziz, bertaraino heldu zen hemeretzigarren mendearen amaieran hasi eta hogeigarren mendearen lehen aldia zehar indartuz joan zen euskaltzaletasunaren eta abertzaletasunaren garra. Horren lekuko ditugu bertan 1899an ospatutako lore jokoak ere. Gerra aurrean, inguruko herrietan sortutako euskal mugimenduak sustrai sendoak zituen bertan. Gerrak eta ondoko errepresio frankistak, baina, ondotxo dakigunez, goitik behera aldatu zuen ibilbide hori.

Gerra-ondokoa naizenez, beharrezkotzat jo dut gerrak ekarri zuen txiki-zioa gogora ekartzea. Lekuko aparta dugu Gabirel Jauregi karmeldar aramaiarra. *Fisia* eta *Kimia* idatzi aurretik gogor jardun izan zuen *Karmengo Argian* natur zientziei buruzko lanak, eta bestelako hainbat argitaratzen. Badakigu harreman estuak izan zituela Aramaiorekin. Gerrak, zorionez, bertan harrapatu zuen Arexolako jaietan. Abertzale eta euskal idazle zelako salatua izan ondoren, estu eta larri igaro zituen hainbat hilabete, hemen, Aramaion. Gasteizen berarekin aitortzen zen militar baten alabari esker salbatu zen.

Gerrak eta ondoko urteetako diktadura frankistak, izugarriko errepresioa eta kaltea ekarri zioten Euskal Herriari eta euskarari. Ez dugu ahaztu behar euskararen alde lanean ari ziren hainbat herrigizon eta apaiz fusilatua izan zirela; eta atzerrira joatea lortu ez zuten askok eta askok kartzela zigor gogorak jaso zituztela. Esaterako, Oletako semea zen Aita Leon Aranguren karmeldarrak, heriotza-zigorra ezarria izan ondoren, bederatzi urte egin zituen kartzelan.

Karmengo Argia aldizkariko zuzendari izan zen Lino Akesoloren eta lagun epaiketari argi geratu zenez, euskararen alde lan egitea, sermolari-tza-zereginetan euskaraz jardutea, euskal aldizkariak bultzatzea edota halakoetan lankide izatea delitu larria zen. Zigor handia merezi zuen delitua, nonbait. Nahiko izaten ziren, gainera, susmo hutsak zigor gogorak jasotzeko.

Gaur egun ere ikusi berri dugu halakorik, *Egunkaria*, *Egin* eta beste hainbat kasutan, demokrazia garaietan bizi garela behin eta berriro aldarrikatzen diguten arren. Sarritan, oinarrizko giza eskubideak ere ez dira errespetatzen dakusagu. Historiak argi agertzen digu beti antzera jazo izan dela kolonizazio egoeratan!

Euskarak izugarrizko zartada jaso zuen, bada. Bat-batean moztu edo urkatu zuten ahalegin handiak eginez berpizten ari zen euskararen aldeko mugimendu osoa. Euskararen landa berdea goitik behera urratu zuten, basamortu gorri bihurtuz. Euskaraz hitz egitea bera ere, hainbat kasutan delitu bihurtzeraino.

Sarritan ahaztu egiten da hau guztiau, gerra osteko hainbat euskaldunek seme-alabak euskaraz hezteko nahiz euskarari eusteko egin zituzten ahaleginak gutxietsiz edota behar den adina ez baloratuz. Euskarak mespretxu ugari eta pertsekuzio gogorra jasan zituen. Beraz, ez dezagun ahaztu, euskarra gaur egungo egoera larrira, neurri handi batean, gerra ondoko errepresio horren ondorioz etorri dela.

2.2. Gerra ondoko iraupen-urteak: 1940-1960

Garai horretan, auzoetako gehienak elebakarrak ziren, erdara apurren bat jakin arren. Gehienak, eskolara joandako egun gutxietan sinatzen edo zertxobait gehiago ikasitakoak, edota soldaduskan gaztelania apur bat lortutakoak. Elizan bertan ere, latina zenez liturgia hizkuntza, kristau-bidea, azalpenak, hitzaldiak, aitortzak, kantuak, den-dena euskara hutsean izaten zen. Sarri pentsatu izan dut neure artean zer gertatuko ote zen Euskal Herriko herri euskaldunetan, euskararen ageriko erabilera hainbatean debekatua izan zen gerra osteko errepresio-garaietan latinik izan ez bagenu. Behar bada, erlijioak sasoi haietan zuen indarra kontuan hartuz, gaztelania bazter guztietara eramateko bide izango ziren gure elizak. Honetan, beraz, ez zigun kalterik ekarri une larri hartan latina erabiltzeak!

Hala, bada, nire umetako garaian, Aramaioko euskararen egoera gaurkoa ez bezalakoa zen. Batetik, populazioari begiratuz, «kalea» deitzen

dugun Ibarren baino jende gehiago bizi zelako auzoetan. Eta auzoetako bizitza oso-osorik euskara hutsean izaten zelako. Ni ere, horrela bizi izan nintzen. Nire aurrekoek ez bezala, eskola ere auzoan bertan izan nuen. Eskola horrek, baina, gaztelania hutsean antolatuta izan arren, ia-ia ez zuen inolako eraginik gure eguneroko bizitzan. Eskolatik kanpo ez genuen inoiz ezertarako gaztelaniarik erabiltzen. Elizan ere, esan bezala, den-dena euskara hutsean izaten zen.

Baserrietako bizimodua, bestalde, oso egokia zen transmisiorako. Familiak nahiko handiak izatean, etxean nahiz lanean bertako kideek elkarren artean hitz egiteko aukera ugari izaten zuten. Berez-berez ikasten ziren euskarako esakuneak eta ohiturak. Zaharren eta gaztetxoek arteko harremanak hain estuak izateak euskara aberatsa jasotzeko aukera paregabea eskaintzen zigun gaztetxoei. Auzoan egiten genuen bizitza osoa. Nik sarri aitortu izan dut Erdi Aroan edo bizitakoa naizela. Eta pozik, gainera!

Ibarren, ostera, gehienak euskaldunak izan arren, handiagoa zen gaztelaniaren presentzia. Umetxoek sarri erantzuten zieten gaztelaniaz euskaraz egiten zien gurasoei. Gurutze-bide latza izan zuten hainbat guraso euskaltzalek! Euskara egiteko beldurra ere ageri zen kalean. Gerra ostean Arrasaten eta inguruetan izandako immigrazio masiboak ere eragin handia izan zuen bertara lanera joaten ziren aramaioarrengan, erdara erabiltzen ohi-tzeko bide izan zelako.

Ibarren kuartel handi bat egoteak ere kalte handia egiten zion euskarari. Kuarteleko emakume, gazte eta umeak erdaldunak izanik, dendariak eta gaztelania erabiltzera behartuta sentitzen ziren. Hala ere, auzoetatik jaisten ginenok, euskara hutsean konpontzen ginen.

Urte horiek, bizitza osorako markatu nindutela uste dut. Euskara erabiltzeaz gainera, euskaldun izaten ere ikasi nuen. Nire bizitzako ibilbidean eragin handia izan duten hainbat balio ere jaso nituen bertan; auzolanean edo talde-lanean jarduten, trukean ezer eskatu gabe beharizanean denari laguntzen, ingurua eta natura maitatzen, luzaroan isilean egoten, pertsona nagusiei begirunea izaten, uzta oparo jasotzeko eskuzabalez ereiten, ondasunak tentuz eta neurriz erabiltzen, eta beste hainbat gauza eder.

Kristau bizitza ere bertan jaso nuen, etxean, elizan eta auzoan. Esan dudan moduan, berez-berez. Denbora aprobeztatzen eta antolatzen ere ikasi nuen, ez baitzen kanpotik eginda ezer jasotzen. Eta, jakina, luzaroan, isilean egoten ere bai, hori eskatzen baitzuen behiak zaintzeak, bide luzeak egiteak, eta halakoetan bakarrik jarduteak. Gerra osteko sasoi horretan ondasunak eskasak eta familiak ugariak izatean, neurritz edo tentuz gasta-tzen ere ikasten nuen.

Baserri bizitzak berez sortzen zuen egoera larriei aurre egiteko elkarre-kin jokatu beharra. Hitzak baino gehiago ekintzak edo jardunak eskatzen zituen. Horrela, adibidez, gun sargoritsu batean elizan arrosarioa erreza-tzen geunden; bat-batean trumoia jotzen hastean, apaizak elizan batu-tako guztioi, lehenbailehen, euria hasi aurretik belarra etxera ekarri be-harra zeukanari laguntzera joateko agindu zigun. Eta auzo osoa, gizonezkoak eta emakumezkoak, handiak eta txikiak, premia larria zue-nari laguntzen! Gero, lasai asko, euriaren tanta-hotsa entzunez, betiko ohiturari jarraituz, kartetan ilunkera arte. Bizitza bera genuen eskolarik ederrena! Eta euskara hutsean bizi ginenez, euskara ikasteko biderik go-zoena ere bai!

Bizimodu horrek, ohitura zaharrek, ingurukoen portaerek, giza balio sakonak norberaren barruan egosten laguntzen zuen. Horrela, halako bi-zimoduak nire eta aramaioar askoren izaera taxutu zuen. Askoren iritzi-z, tradiziozko auzolanerako antolaketa-joera horrek eragin zuzena izan zuen Arrasaten Kooperatibak bidean jarri zirenean. Josetxu Martinez Montoia jaunak, Aramaioko giza antolamenduari buruz eginiko antropologia-te-sian, auzolanaren ikuspegi modernoa eskainiz, hainbat berri jakingarri eskaintzen dizkigu (ikerlanaren laburpena, Aita Gabriel Jauregi Uribarren zenari buruz *Karmel* aldizkariak 1995.ean argitaratutako zenbaki mono-grafikoan eskaini genuen).

Horrelakoa izan zen, gutxi gorabehera, 1940tik 1960ra arteko aramaioar gehienon bizimodua. Euskarak, oztopoak oztopo, oso indartsu jarraitzen zuen Ibarren bertan ere, irakaskuntza eta administrazioa gaztelania hutsean izan arren.

2.3. Azken 50 urte hauetako ibilbidea (1960-2010)

Aldi luze hau zatika aztertuko dut, hogeituro urteko bi aldi eta hamar urteko azkenaldia bereiziz. Horrela, errazago jarraituko dugu arloa.

2.3.1. Aldaketa demografikoak: 1960-1980

Hirurogeiko hamarkadetan aldaketa sakonak gertatu ziren Aramaion. Baserri bizitzaren gainbeheraren ondorioz, zeharo aldatu zen bertako biztanleen egoera, baserrietako gazteak kanpora joan beharra izan zutelako. Auzoetako jendea gutxitzeak, eta pertsonarik aktiboenak –gazteak– kanpora joateak, bide batez, erdararen gunea zen Ibarra auzoa indartzea ekarri zuen.

Horren ondorioa izan zen auzo-eskolak ixtea, eta umeak Ibarra batzea ere. Horrela, ume euskaldunak erdaldunekin nahastean hainbatean aldatu zen ume horien bizitza-ingurua, eta, normala denez, gaztelaniaren eragina jasaten hasi ziren. Ordura arte «*Baietz*» bakarrik esaten zutenak «*Akebaietz*» esaten hasi ziren. Eta horrelako beste zenbait esaera.



Horrek guztiak, jakina, ardura handia sortu zuen bertako euskaltzaleen artean. Eskola nazionaletan ezin zitzaiola euskarari lekurik egin ikusirik, ikastola jarri zen abian 1970ean herritarren diru-laguntzaz eliza honetako sakristian. Urtebete geroago udalak eskainitako lokaletara aldatzea lortu zen. Hala ere, ikastolako umeez ikasketak euskaraz egiten jarraitzeko eragozpenak zituztela ikusirik, guraso batzuk ALMEN ikastetxeko bazkide egin, eta seme-alabak bertara bidaltzen hasi ziren.

Ez zen, baina, hori arazoari benetako erantzuna emateko bidea. Gogor borrokatu behar izan zen, Arabako Aldundiak ikastola bere babespean hartu, eta eskolaurreko umeez jarraipena euskaraz Aramaion bertan izatea lortzeko. Bestetik, eskola nazionaleko umeez ere euskaldundu beharra zegoenez euskarazko eskolak ere martxan jartzea lortu zen, hasieran orduz kanpo izan arren. Azkenik, ikastola eta eskola nazionala elkartu, eta pixkanaka irakasle guztiak euskaldunak jartzea lortu zen.

1969an, nire apaiz-ikasketak egiten herritik kanpo urteetan izanda gero, berriro Aramaiorekin harremanetan hasi nintzenean, bihozkada gogorra jaso nuen.

Ikasketa garaietan euskara sakontzeko eta aberasteko aukera izan, eta teologiako ikasketak egiten ari nintzela GOGOZ aldizkaria sortzen eta Bilboko Karmeloko gaueskolak abian jartzen ibilia nintzanez, irakiten jarri zitzaizkidan barrenak Ibarra kaleetan erdara nagusitzen ari zela ikustean.

Kontzientziazio falta zegoela eta, beste zenbait egintzen artean, hitzaldiak eta antolatu genituen jendeari konpromiso sendoak eskatzeko, 1963an kaleratutako *Pacem in terris* entziklika aztertuz. Horrela, euskararen aldeko mugimenduari bultzada berria ematea lortu genuen, martxan jarri nahi zen hartzaindegia alderdi giroa areagotuz.

Nik beste zerbait ere egin nuen. Santutxuko gau-eskoletan genbiltzanok ordura arte Arratian eta Markinan ematen genituen udako ikastaro trinkoak Aramaioko *Etxaguen* auzora ekartzea lortu nuen. Alfabetatu eta euskarako titulua ateratzeko ikastaroak izaten ziren. Abade-etxea hutsik geratzeak aukera ederra eman zigun. Horretan, laguntza handia eman zidan auzoko elizaren ardura hartu zuen Ambrosio Bergaretxe apaizak ere. Geroa-

go, leku zabalagoa behar, eta bi bizitzakoa izandako nire jaiotetxe zaharrera aldatu genituen eskolak. Aitortu beharra dut auzoko jendeak onarpen oso ona egin ziela bertara etortzen ziren gazteei.

Aramaioko hainbat gazteri, ikastaro horietan parte hartzeko aukera eskaini nien, euskararen balioaz jabetu ostean, herrian euskararen alde lanean jartzeko asmoz. Ikastaroetan parte hartzen zutenak herrietako jaietara ere joaten zirenez, euskararenganako begirunea eta zaletasuna indartzeko bide izan ziren. Zortzi urtetan 400 bat ikasle izan ziren ikastaro trinko horietan. Auzoko jendeak harrera oso ona egin zien bertara etortzen ziren gazteei.

Euskaltzaindiak, Arabako euskaltzainek eta hainbat euskaltzalek Aramaioko euskarari bultzada eman nahirik, 1971n bertan bilera egin zuenean, hemengo euskararen egoerari buruzko txosten bat eskatu zidaten. Euskararen egoera larria izan arren hil-kanpaiak isildu nahi izan nituen, euskara galduta zegoela zioenei honako hau esanez:

«Azkeneko urte honeetan *Zeruko Argian* da, behar ez diran batzuk irakurri ditugu, hemen euskera betiko galdu dala-eta holango batzuk. Bilera honek nahiko ondo agertzen dau hori ez dala egi hutsa. Gaur egun gure euskera, beste toki askotan legez, arrisku bizioan agiri jaku, besterik ez. Beste edozein bazterretako arrisku berberetan. Ezin daikegu ba esan, ez euskera galdu danik ez indartsu dagoenik. Gure euskera atzeraka doala? Bai, eta... non ez?»

Ibarrako egoerari buruzko datu batzuk ere bildu nituen: 4 urtetik beherrako ume gehienak euskaldunak ziren. 4 eta 7 urte artekoak, euskara ulertu arren eragozpenak zituzten hitz egiterakoan. 7 eta 17 urte arteko Ibarrako gaztetxo gehienak ulertu baino ez zuten egiten euskara; bakarren batzuk erraztasunez hitz egin. 17 urtetik gorakoan artean ere oso ugaria zen erdara erabiltzeko joera. Abiadura handiz atzeraka zihoan, bada, euskara. Nabarmena zen gaztelaniazko eskolak egiten zuen kaltea.

Egoera aldatzeko konponbide batzuk ere proposatu nituen: bertako euskaldunek beti euskara erabiltzeko konpromisoa hartzea; ikastola sortu berriari laguntzea; aurreko urtean hasitako gau-eskolak indartzea; euskarari berehala eskola nazionalen tokia egitea. Era berean, benetako

konponbidea aramaiarren esku zegoela ere gogoratu nuen, agintariei nahiz herritarrei euskararen aldeko konpromiso sendoagoa hartzeko eskatuz:

«Aramaioko euskerea ez da berez hilgo. Geuk hilgo dogu. Geu izango gara hiltzaile eta errudun zeozer gehiago honetan ahalegin-tzen ez bagara. Eta euskara itoaz batera geure herri au bere hilgo dogu. Geure nortasuna eta berezitasunak betiko itoko ditugu. Euskera galtzeaz batera, geure kultura aberastasunik ederrean bere galduko dogu».

Azkenik nire berbaldiari amaiera emateko beste hau ere gogoratu nuen:

«Orain urte batzuk dirala Arabako alkateak hemen Aramaion batu ziranean, gogor egin eben gure euskeraren alde. Arabako euskaldun herri bakarra dala eta ezelan bere ez galtzeko eskatu euskuen. Eta Diputazioko agintariak heuren laguntza eskaini bere bai. Laguntza hori eskuratzeko unea dogu, Nik uste dot, gaur hemengo agintariak Euskaltzaindikoekaz elkar hartuta dei bat egin behar deusezuela bai Diputaziokoei bai Arabako Diru-kutxakoei, kulturaren alde lanean dabilzen ezkeru, gure euskera euren ardurapean hartu eta aurrera ataratzeko behar direnak egin dagiezan. Izan bere Araba osoarentzat lotsagarria litzake hemen euskera galtzea. Eta, behar bada, orain gogor ekiten ez badeutsagu gero beranduegi izango dogu.»

Bi urte geroago, 1973ko udan, Aramaio auzoz auzo ezagutzeko aukera izan nuen toponimiari buruzko lana egiten ibili nintzanean. Poz handia hartu nuen bertakoek zuten euskaltzaletasuna ikusiz. Izen-bilketa hori Aramaio sakonetik ezagutzeko bide izan nuen. Aurrerantzean askoz ere harreman estuagoak izan ditut aurretik ezagutu ere egiten ez nituen bertako hainbat auzoko seme-alabekin.

Zorionez, urte haietan (1960-1980), diktaduraren azken urteetan hasita, hainbat aldaketa politiko eta linguistiko izan genituen Euskal Herrian zehar. Horrela, eragin handia izan zuten Aramaion Arrasate inguruan izandako hainbat gertaerek: kooperatibak abian jartzean Gipuzkoako hainbat euskaldun bertara etortzeak, ikastola abian jartzeak, *Eskola Laborala* indartzeak, *ALMEN* zentroak, eta Arrasate inguruan sortu zen euskararen alde-

ko mugimendu indartsuak. Horien guztien bidez arnas beroa hartu zuen euskarak Aramaion ere.

Elizetan euskarari, lekua egitea ere oso onuragarria izan zen. Bestalde, lehen aipatu *Pacem in terris* entziklikak izugarrizko oihartzuna izan zuen Euskal Herri osoan, bete-betean aldarrikatzen zuelako hizkuntza propioa izateko gure herriak zuen eskubidea. Hankaz gora jarri zituen euskararen kolonizazioa edota heriotza bultzatzen zutenen asmoak. Bide batez, dei egiten zien kristauetara eskubide horien alde jokatzera. Elizek eta komentuek ere, beren babespeko lokaletan ateak zabaldu zizkien haurtzaindegi, ikastola, gau-eskola, dantza-talde eta halakoei. 1970. hamarkadan euskararen alde eman ziren egintza ugariak hainbatean hobetu zuten Aramaioko euskararen egoera.

2.3.2. *Autonomia garaiak: 1980-2000*

Aipatutako hogeitaz inguruko epealdi horren ondoren, Autonomia garaiak etorri ziren, eta euskarari lekua egin zitzaion irakaskuntza publikoan, administrazioan eta beste hainbat lekutan. Gertakari horiek eragina izan zuten Aramaion ere, hainbatean euskararen aldeko joerak indartuz.

Hala agertzen da euskararen ezagutza maila jakiteko datu-bilketak 1981eko erroldan abian jarri zirenean. Datu horiei buruzko azterketa interesgarria eskaini zigun Patxi Salaberri ikertzaileak Aita Gabirel Jauregi Uribarren karmeldarraren jaiotzako urteurrena (1995) gogoratzeko *Karmel* aldizkariak prestatutako zenbaki berezian. Lan eder horretan eskaintzen diren datu ugarien laburpen bat eginez honako hau ateratzen zaigu:

- **Aramaioko populazioak gutxitzen jarraitzen zuen** 1960. urte inguruan hasitako bidetik. Horrela, esaterako 1981etik 1991ra artean 213 pertsona galdu zituen.
- **Euskararen ezagutzari dagokionez, gorakada nabaria gertatzen da** 1981 eta 1986 urteen artean. 1.174k (%89k) diote euskaldunak direla. Beste 73k (%5,54k) ia euskaldunak direla; eta 71ek (5,39k) erdalduinak direla. Bost urte geroago, 1986ko erroldan, ostera, gelditu egiten da 1970. urte inguruan hasitako euskararen gorakada. Oraingoan,

1.103k (43 gutxiagok) diote euskaldunak direla; 116k (45 gehiagok) ia euskaldunak direla; berdintsu jarraitzen du erdaldunen kopuruak 65ek (5 gutxiagok).

– **Euskararen etxeko erabilerari dagokionez**, eroldako datuen arabera, Aramaion bizi ziren 1.310 pertsonen artean honakoa ageri zaigu:

- Euskaldunak 1.103 izan arren, 882k erabiltzen zuten etxean euskara.
- Erdaldunak 65 bakarrik izan arren, 209k erabiltzen zuten etxean erdara.
- Ia euskaldunak 116 arren, 209k erabiltzen zituzten euskara eta gaztelania nahasian etxean.

Ondorioa: Eroidako datuen arabera, 221 euskaldunek ez zuten euskara erabiltzen etxean. Asko ugaritu zen (93 pertsona) euskara-gaztelania nahasian erabiltzen zutenen kopurua. Erdaldunak ez ziren 144 pertsonak erdara erabiltzen zuten etxean.

– **Kaleko erabilera neurtzeko lehen inkesta 1993an egin zuen EKBk.** Talderik talde (ume, gazte, heldu eta zaharrak bereiziz) egindako inkestan datu hauek ageri zaizkigu:

- Umeen artean (0-14 urte) %89k jakin arren, %65ek erabiltzen zuten.
- Gazteen artean (15-24 urte) %85ek jakin arren, %64k erabiltzen zuten.
- Helduen artean (25-64 urte), %84k jakin arren, %40k bakarrik erabiltzen zuten.
- Helduen artean (25-64 urte), %84k jakin arren, %40k bakarrik erabiltzen zuten.
- Zaharren artean (65etik gorakoak) %86k jakin arren, %75ek erabiltzen zuten.

Ondorioa: %85ek jakin arren, %57k erabiltzen zuten euskara. Akatsik handiena (erdiek baino gutxiagok erabiltzea) herrian eraginik zuzenena zuten 25-64 urte artekoen artean ageri zen.

2.2.3. Gogoeta garaia: 2000-2010

Geroago beste hiru inkesta egin dira. SIADEKOk 2001ean, eta *Soziolinguistika Klusterrak* 2003an eta 2008an. Azken bi enketetan 1993an EKBk egindako inkestako emaitzen antzerako datuak ageri zaizkigu, azkenengoan (2008koan) beheranzko joera nabariagoa bada ere. Beraz, esan dezakegu Aramaion euskara, nahiko pertsonak (%80 inguruk) ezagutzen dutela. Erabili, ostera, %53-57 inguruk bakarrik. Populaziorik erdaldunena 35-50 urte dituztenen artekoa da. Bertako gune nagusian, *Ibarran*, adin horretako %20 erdaldunak dira.

Inkesta guztietan ageri da adineko pertsonak (35-70 urte artekoak) direla euskara gutxien erabiltzen dutenak. Beraz, sozialki eta ekonomikoki herrian eraginik handiena duten pertsonak. Bestalde, beste hainbat lekutan bezala, euskararen erabilera beherantz egiten hasi da gatzetxoan artean ere. Argi dago, bada, irakaskuntzak ezin duela adinekoen hutsunea konpondu.

Bide batez esan beharra dago, honetan guztian izugarritzko eragina izaten dutela ohitura txarrek. Hau da, erdaldunekin erdara erabiltzen ohitu eta gero euskaldunen artean ere erdaraz jarraitzeak. Behin euskara eta hurrengoan erdara erabiltzea ere, euskara galtzeko lehen pausoa izaten da. Horrek erraztasuna galtzea ekartzen du, eta, denok dakigu, zenbat eta erraztasun gutxiago izan, hainbat eta errazago jotzen dela baztertzera.

Hau honela, gogora ekarri behar ditugu Gandiagaren hitzak:

«hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik».

Jakina, euskaldunei erantzukizunik kendu gabe, erdaldunek ere badute honetan ardura hartu beharrik, ezinezkoa delako inguru erdaldunean euskaraz bizitzea.

3. Erronka berriak

Euskaldunok bizitzako une guztietan euskara erabiltzeko asmo sendoa hartu arren, ia ezinezkoa dugu gaur egungo gizarteko egoeran, gure inguru gaztelaniaz bizitzeko antolatua dugulako. Gaur egun, gainera, beste erronka

batzuei aurre egin beharra ere badugu. Goitik behera aldatu zaigu muga geografikoaren ikuspegia eta eragina. Orain, mundua herri handi bakarra bihurtzen ari zaigu. Kokaleku birtual batean bizi garela esan daiteke.

Komunikabide berrien bidez (Telebista, Internet, eskuko telefono edo zelularra eta abarren bidez) gure etxeko ate-leihoak mundura zabalduta bizi gara. Euskarak inguru berri horrek dakarzkigun eragozpenei aurre egin beharra du.

Lehenago sarri esaten genuen gure kolkorako, geure buruari animoak eman nahirik edo, 'gu bizi garen artean ez da euskararik galduko'. UNESCOk, baina, hainbat hizkuntza galduko direla mende honetan betiko dioskunean, eta gure artean inguruko hizkuntzak nagusitzen ari direla ikustean, kezka larriak sortzen zaizkigu.

Era berean, azken aldian gure artera etortzen ari zaizkigun inmigrante erdaldunek ere (gure zahar euskaldunak zaintzen jarduten dute askotan) hainbat eragozpen sortzen digute kalean nahiz familietan euskaraz bizi ahal izateko.

Izugarria dugu, baita ere, globalizazioak eta teknologia berriek dakarten iraultza. Zeharo aldatzen ari da gure ume eta gaztetxoek inguru linguistikoa. Geroago eta zailagoa gertatzen ari da hizkuntzaren transmisioa familietan. Gurasoek geroago eta asti gutxiago dute umeekin euskaraz jarduteko. Hizkuntzak erroak sendo jartzeko beharrezkoak dituen inguru euskaldunak desagertzen ari zaizkigu.

Hizkuntza, batez ere ahozko jarduna izanik, eta ondorioz bere bizia eta indarra erabileran egonik, kezka handia sortzen digu zenbait egoera berrik, esaterako, gure ume eta gaztetxoek geroago eta denbora gehiago ordenagailu eta antzerako tresna «mutuen» aurrean igarotzeak. Hain zuzen ere, hizkuntza ezin delako hitz egin gabe bizi, eta hitz egiteko erraztasuna galitzeak alde batera uztea ekartzen duelako.

Behar bada, geroago eta eskurago dituzten baliabide tekniko horiek erabiliz, gure ume eta gaztetxoek ariketa eta lan idatzi ederrak egingo dituzte euskaraz, baina, hitz egiteko orduan kili-kolo ageri zaizkigu, egin ezinda. Hizkuntzaren praktika faltako zaie, hizkuntza hainbatean automatismoaren

emaitza baita. Horrela, bat-batean gorri jarri zaizkigu semaforoak, ardura ugari sortuz. Baliabide guzti horiek euskararen onerako erabiltzeko bideak bilatu beharko ditu, bada.

Gaur egun oso baliabide gutxi ditugu euskaraz inguruko hizkuntzen erasoei aurre egiteko. Telebista bat edo beste euskaraz dugula eta pozik gaude, baina alboan berrogeita telebista erdaldun ari zaizkigu bultzaka, gu ito gurean. Berdintsu gertatzen zaigu irrati eta prentsa idatziaren eremuan ere. Euskarak bizi-iraupenerako beharrezkoak dituen hainbat alorretan aurrerakuntzak izan baditugu ere, oso txikiak izan dira inguruko hizkuntzetan gertatutakoekin konparatuz. Guk bi urrats eman orduko hamar ematen dituzte gure ingurukoek. Ito egiten gaituzte. Aurrera egin ezinean gabiltza.

Egoera horrela, ez dugu nahikoa asmo onak edo gogo finak izatea. Euskaraz bizitzea ahalbideratuko digun gizartea behar dugu. Oraindik ez digute aitortzen euskaldunoi Euskal Herrian euskaraz bizitzeko eskubidea. Bizitzako hainbat unetan eta tokitan erdara erabiltzera behartzen gaituzte. Ez da oraingo egoera larri hau aldatzeko urratsik ematen. Txarrago oraindik, azken aldian, sarriegi Euskal Herrian zehar kontrako egintzak ikusten ari gara.

Eleaniztasunean oinarritutako irakaskuntza planteatzean ere zenbait zalantza eta kezka sortu zaizkigu, euskarak azken urteotan irakaskuntzan (A eta B ereduetan batez ere) sekulako porrota izan duela ikusi ondoren. Hainbat itaun datozkigu bat-batean burura: nondik aterako da plan berrietarako astia? Oraingoan ere, ez ote da euskara kaltetuko duen eredia aukeratu? Lehendik txarto eta, beharbada, aurrerantzean oraindik txarrago!

Unerik egokiena edo aproposena genuke, bada, estatuari eta beraren ordezkariari euskararen aldeko diskriminazio positiboa eskatzeko, neurri batean, behikik behin, gerra osteko urteetan egindako kalteak konpontzeko.

New Yorken egin berri den *Nazio Batuen Erakundearen jatorrizko herrien batzarrean*, euskaldunoi ez zaizkigula hizkuntza-eskubideak aitortu ondoren, «*hizkuntza bat desagertzen denean herri bat desagertzen dela*» gogorarazten digute. Eta hori esan ostean konpromisoa eskatzen zaigu:

«eskubideen aldarrikapena ez da aski; herriek eurek, hizkuntzaren eta kulturaren garapena ahalbideratzeko estrategiak planteatzeko eginbeharrak dauzkate».

Estrategia egokiak abian jarri beharra aipatzen dute. Horren bila ibili gara azken urte hauetan. Ahalegin handiak egin dira bide egokien bila. Eta, azkenean, honetan ere aurrerantz egitea lortu dugu. Atera berri ditu *Kontseiluak* (Euskal Herrian euskaraz lanean diharduten berrogeita hamasei erakundeetako ordezkariak osotutako erakundeak) horretarako bide izan daitezkeen bi liburuxka eder:

«Ikasle euskaldun eleanitzak sortzen eta Euskararen erabilera aragotzeko estrategiak eskolatik abiatuta».

Beraz, nahi izanez gero, badugu liburuxka horietan ekarpenik eta gogoan hartzekorik ugari.

4. Ba ete du Aramaion euskarak etorkizunik?

Aurreko datuen arabera, Aramaion, euskararen erabilera nahiko egoera larrian ageri zaigun arren, badugu itxaropenerako biderik, gure arteko euskaldunen kopurua oraindik oso handia delako. Aramaio, bestalde, UEMAn (Udal-erri Euskaldunen Mankomunitatean) sartua dugu; bertako udal administrazioa euskaraz bizi da; bertako umeen heziketa ere euskaraz da 12 urtera arte, behinik behin; bertako bizilagunek aldizkari eta telebista euskaldunak eskuratzeko aukera paregabeak dituzte. Udala ere fin ari da euskara bultzatu nahian.

Beste zerbait ere badugu aldeko. Bertan hainbat elkarte (17) jardunean izatea. Horien artean batzuek, gainera, jo eta ke dihardute euskararen alde lanean. Elkarte horiek hemen jendaurrean aipatu nahi ditut, eta guztiei banan-banan dei egin, denok batzen gaituen euskararen aldeko ahaleginetan lan egitera. Honako hauek dituzte: *Txirritola* Euskara Elkarte, *Bertso Eskola*, *Lagun Artea* Dantza-Taldea, *Trikitixa Taldea*, *Bizente Goikoetxea* Abesbatza, *Papargorri* Eskolania, *Alaiak* Jubilatuta eta Pentsionisten Elkarte, *Garze Asanblada*, *Gorroto* Rock Taldea, *Itur-Zuri* emakume elkarte, *Briska* emakume elkarte, *Orixol* Mendizale Elkarte, *Oilogor* Ehiza eta Arrantza taldea, *Kurtzeta Gain* Taldea, *Osteta* Futbol Sala, *Pilota Taldea*, *Azpiko Racing*.

Hori horrela, hemen zareten elkarte horietako ordezkari eta kideoi, bihotz-bihotzez eta banan-banan dei egin nahi dizuet, euskararen aldeko ahaleginetan batera jardutera, gure herriaren etorkizun euskalduna jokoan dugu eta. Zuen taldeetako 10 pertsonak beti euskara erabiltzeko konpromisoa hartu ezker, iraultza gertatuko litzateke herrian nahiz etxeetan.

Hau honela, lehen bide batez aipatu dudan Josetxu jaunaren ikerlanaren amaierako atal bat aurrera ekarri nahi dizuet oso ongi argitzen duelako Aramaion azken urte hauetan gertatutakoa, hau da, Aramaio hainbat auzo bananduk osotutako herrialdea izatetik *Ibarraren* inguruan elkartutako auzo handia izatera aldatu izana:

Euskal Herria modernizatzearen ondorioz, galdu egin dira (mende hone-tako 50. urtetik aurrera), produktuak ateratzeko eta kudeatzeko tradiziozko mendialdeetako jokaera asko; ohitura guzti horiek betiko balioa galdu dute, eta hainbat eta hainbat hasiko dira baserriaren krisialdia iragarri eta, ondorioz, euskal kulturaren hondamena datorrela deiadarka. Aramaioko haraneko gaur egungo gizarte harremanak aztertzeari ekiten badiogu, bestetara dela, hau da, lehenagoko antolaketa-arauak gaur egungo jokaera eta erakundeetan berriro mamituta agertzen direla ikusiko dugu. Jaiek, gastronomia-elkarteek, ehiza eta mendigoizale taldeek eta antzerakoek auzoko izatea nola bizi erakusten digute; eta auzotasun hori taldeka eta elkarren arteko erantzukizunak hartuz bizi zeak, kokalekua auzo txikia izan beharrean haraneko gune nagusia kalea dutela haranean bizi direnen kalte luze-ko partaide izatea agertzen du. Gizarte antolaketa berri hauei esker, haran osoa auzo handi bat egin da, bertan auzotasunaren barruko indarra, berriro, nekazaritza-gune berri bat egiteko gogoan eta ahaleginetan agertzen dela.

Etxe biziak berriak direla bide, azken urteetan gertatzen ari populazioaren aldaketak ere itxaropenerako ateak irekitzen ditu, bertako hainbat seme-alaba bizitzen herrian geratzea ekarri duelako. Guraso gazte horiek euskarari indar berria emateko aukera izan daitezke. Bultza ditzagun horretara.

Hona etorri zareten inguruko udaletako ordezkarioi ere, zerbait gogoratu eta eskatu nahi dizuet. Elkarren ondoan bizi zarete Arrasate, Eskoriatza, Aretxabaleta, Oñati eta Aramaioko udaletakoak. Badakit azken urte hauetan hainbat urrats txalogarri eman dituzuela euskararen alde. Abian jarri-

tako ahalegin horiek areagotu beharra duzue, euskarak eta beste hainbat interesek elkartutako familia handia egiten duzuenez.

Zuen herrietako seme-alabek lotura estuak dituzte beraien artean, lanean, irakaskuntza mailetan, denbora-pasatzeko ekitaldietan, eta beste hainbat alorretan. Horrek, udal guztiak elkar hartuta jokatzeko eskatzen du. Batez ere, ume eta gaztetxoentzat, euskaraz bizi daitezen, elkar-lanean giro euskalduna sortzea. Oletakoek, jakina, Otxandioko udalarekin batera jardun beharko dute, helburu berdinak lortzeko.

Beraz, Euskaltzaindiak 1971n egin zuen bilera, aramaioarrak euskararen alde bultzatzeko urratsa izan zenez, gaurko bilera hau ere, euskararen erabilerari bultzada emateko izatea nahi nuke. Orduan nik laburpen modura esandakoek, oraindik indarrean dirautela uste dut:

«Gure herri hau oraingoz euskaldun dogu, nahiz da bertako euskera egoera gatx baten aurkitu. Ez dira izan ba alperrezkoak gure aurrekoen ahaleginak. Hala ta guttiz bere, hemen bere, atzeraka hasi jaku euskera. Arrisku haundi batean aurkitzen da».

Azken hitzak

Hitzaldi honen izenburuari *zirelako gara eta garelako izango dira* amaiera emateko, ezinbestekotzat jo dut beste zerbait ere gogora ekartzea. Aramaioeko euskararen ibilbideari begirada zabala egin ondoren, azken mende erdi honetan euskararen alde izugarritzko ordu pila eta dirutza multzo kontaezina jarri duten Euskal Herriko erakunde eta pertsona guztiei neure begirunea agertu nahi diet. Euren ahalegin handi horri esker jarraitzen duelako gure Euskal Herriak euskaldun izaten.

Egia esan, herri gutxi izango dira munduan zehar, nortasunaren euskarri eta ezaugarri nagusia izan ohi den hizkuntzaren alde Euskal Herriak azken berrogeita hamar urte hauetan egin duen bezalako ahalegin neurrigabea egin duenik. Frankismoa oraindik indartsu zegoen garaletan hasi zineten gogoz eta adorez zuetariko asko, hor-hemenka, hainbat bazterretan euskara gizarteko egoera tamalgarri hartatik bizirik ateratzeko ahaleginetan.

Esan dudanez, kontatu ezinezko ordu piloa eta izugarritzko inbertsioa egin izan dugu azken berrogeita hamar urte hauetan euskaldunok euskara egoerarik larrienetan ere bizirik aurrera ateratzeko. Guzti hau kontuan hartu gabe oso zaila egingo litzaiguke Aramaion zein beste hainbat tokitan izan den bilakaera behar den neurrian ulertzea.

Euskara belaunaldi berriei transmititzeko, indarberritzeko eta zabaltzeko euskaldun zaharrek egindako ahalegin handi horri ezker, gaur egun azken mendeetan guttiz galdua genuen hainbat lurraldetan zabaltze-bideetan dugu euskara. Arabari dagokionez, erriberako bazterretan hasi eta udalerrri guztietan, hiriburua barru, indartzen ageri zaigu. Horrek pozez betetzen gaitu ama-hizkuntza euskara izan dugun euskaldunok. Zorionez gure Arabako lurraldean geroago eta euskaldun berri gehiago dugu, eta irakaskintza alorrean geroago eta gehiago dira euskararen alde egiten duten guraso erdaldunok.

Baina guzti hori ez da zoriz edo kasualitate hutsez gertatu. Euskara belaunaldi berriei eskaintzeko euskaldun zaharrok egindako lan izugarria dela medio baino. Badakit honetan bidelagun eragile zintzoak, eta sarritan euskaldun zahar asko baino finagoak izan ditugula hainbat eta hainbat euskaldun berri, baina aitortu beharra dut, era berean, euskararen bizi-iraupena egoerarik larrienetan ere ama-hizkuntzari eutsi, eta zabaltzen jardun izan dugunoi zor zaigula.

Hor ditugu Euskaltzaindiak eginiko lanaz gainera, beste hainbat erakunde ekintzaile eta egintza txalogarri. Besteak beste,

1. Ume eta gaztetxoak euskalduntzeko lan izugarria egin duten eta ete-nik gabe egiten diharduten ikastolak. Zenbat lan, zenbat diru, zenbat ahalegin euskara aurrera ateratzeko! Eskola publikoetan nahiz ikastetxe pribatuetan euskarari lekua egitea ere, nire ustetan, hainbatean ikastolen bultzada handi horri esker gertatu da. Era berean, eskerrik beroenak, baita ere, irakaskuntzan, pribatuan nahiz publikoan, euskara indarberritzen jardun izan duten guztiei.
2. Ikastoletara joateko aukerarik ez zuten umeak alfabetatzeko lan paregabea egin zuen *Kili-Kili* talde eragilea. Nork zenbatu *Kili-Kilik* alfabetatutako haur euskaldunen kopurua? Jose Antonio Retolaza

jaunak, Iñaki Egurrola lagun finaren laguntza jaso, bizitza osoa eskaini dio ekintza honi bere ondasunak erabiltzeraino. *Kili-Kili* aldizkari bat baino gehiago izan da, haurrak Euskal Herri osoan zehar euskara maitatza eta erabiltza bultzatu dituen adinean. Alfabetatzeko aukerarik izan ez zuten Euskal Herri osoko haur guztiengana heltzea lortu zuen.

3. Adinekoak alfabetatzeko nahiz erdaldunak euskalduntzeko lan izugarria burutu izan duten eta burutzen ari diren *AEK*, *IKA*, *Labayru* eta beste zenbait talde. Nork zenbatu, urteak joan urteak etorri, oztopoak oztopo, erakunde horiek Euskal Herria euskalduntzen eta alfabetatzen egindako lan izugarria? Askotan, gainera, dohainik edota huskeriaren truke, inolako gizarte segurantzarik gabe, solda oso eskasak eskuratuz. Diru-iturriak lortzeko eta euskaltegiak abian jartzeko asmatu ahalak egin behar izan dira ibilbide luze horretan. Beharizan gorri horiek bultzaturik jarri zen abian *AEKk* halako arrakasta handia izan eta euskararen erabilerari izugarrizko bultzada eman dion *Korrika*. Hor ditugu udako ikastaro trinkoak ere!
4. Euskarari goi mailetako irakaskuntzan lekua egiteko jardun izan duten UEUko eta Unibertsitateko hainbat irakasle gartsu ere gogoratu nahi nituzke, euskara goi mailara jasotzea lotu baitute, beraren izena mundu zabalera eramanez, eta irakaskuntza alorrean behar ditugun irakasleak prestatuz. Aparteko hainbat ahalegin egin behar izan dituzte euskarari leku duina Unibertsitatean egiteko.
5. Euskal Herriko bazter guztietan euskaldunak batu eta euskaltzaletasuna areagotzen sekulako lana egin duten bertsolariak eta kantariak ere hor izan ditu jo eta ke etenik gabe lanean, gure herrian mendez mende bizirik iraun duen ahozko tradizio-katea zaintzeaz gainera, euskararen erabilera eta euskaldunon arteko batasuna bultzatzen izugarrizko lana burutuz.
6. Eta hori guztia ahalbideratzeko edota horiek guztiek bultzatuta, testugintzan, hiztegitintzan, literaturan, itzulpengintzan, musikagintzan, komunikabideetan (ahozkoetan nahiz idatzietan) eta beste hainbat eta hainbat alorretan, inongo laguntzarik gabe edota

laguntza urriak jasoz, etengabeki euskararen alde jardun izan duen jendetza.

7. Auzolanak (talde-lanak) halako indar handia izan duen gure herri honetan ezin aipatu gabe utzi, EKBk (Euskal Komiteen Batasunak) abian jarritako batasun bidea gailurrera eraman duen *kontseilua*. Globalizazioaren garai honetan izugarrizko eragina izaten ari da erakunde honek gogor dihardu euskararen transmisioa ahalbideratzen nahiz berreskuratze-lanetan. Berau izan dugu azken urte hauetan euskaldunok euskaraz bizitzeko dugun eskubideen alde etengabeki jardun izan duen eta diharduen erakunderik indartsuena.
8. Gogora ekarri nahi ditut, baita ere, erakundeetan egon ez arren, Euskal Herri osoan zehar, gehienetan isileko lan neketsu artean, euskararen bizi-iraupenerako ahalegin izugarria egin duten gure aurreko euskaldun guztiak.
9. Azkenik nire begirunea erakutsi nahi diet, baita ere, ahalegin handia egin ez euskara ikasi ondoren, zabaltzeko ahaleginetan euskaldun asko baino finagoak izanik, bidelagun izan ditugun euskaldun berri ekin-tzaileei.

Ez dut uste mundu zabalean, hizkuntzaren alde Euskal Herriak egin duen adinako ahalegina egin duen herri asko izango denik. Euskaldunok Euskal Herri euskalduna nahi dugula erakutsi dugu era askotara, behin eta berriro Euskal Herrian euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatuz. Argi adierazi dugu aurreko belaunaldietatik jaso dugun euskara etorkizuneko belaunaldiei eskaini nahi diegula. *Kontseiluak* egin berri digun deiari jarraituz, heldu zaigu *bai euskarari* esatetik *euskaraz bai* esanez euskaraz bizitzeko unea.

Horregatik Euskal Herriaren ordezkari nagusi dugun Euskaltzaindiaren egintza honetan, GOGOZ eta ADOREZ (hain gogoko ditudan bi hitzok erabiliz), gizarteko alor desberdinetan lan izugarri hori egiten jardun izan duten, eta oraindik diharduten guztiak gogora ekarri nahi izan ditut, gaur hemen, zuen aurrean, eta guztientzat txalo bero bat eskatu hona etorri zaretzen guztioi.

Bibliografia

- ATUTXA ETXEBARRIA, I., 1995 «Euskara», *Karmel*, 211, 1/2. 215/252. orr.
- BARAIAZARRA TXERTUDI, L., 1995 «Euskal idazleak», *Karmel*, 211, 1/2. 167-181. orr.
- ELEJALDE, Jesus Mari: «Historia», *Karmel*, 1995, 211, 1/2. 151-158. orr.
- GARATE GOIHARTZUN, G., 1995 «Euskara», *Karmel*, 211, 1/2. 183-214. orr.
- MARTINEZ MONTOYA, J., 1995 «Auzotasuna eta nekazal hiritartasuna», *Karmel*, 211, 1 / 2. 325-330. orr.
- ORMAETXEA, T., 2006 «Aramaioko euskara», *FLV*, 101. 5-42. orr.
- SALABERRI MUÑOZA, P., 1995 «Hizkuntza errealitatea», *Karmel*, 211, 1/2. 252-260. orr.
- UNZUETA, A., 1995 «Erlijiotasuna Aramaioko haranean orain dela ehun urte», *Karmel*, 211, 1/2. 159-166. orr.
- URIBARREN LETURIAGA, P., 2009 «Arabako idazleak», *Euskera*, 54, 1. 127-140. orr.
- 1972, «Aramaionako euskerearen berezitasunak, euskal idazleak eta euskeraren egoera eta etorrera», *Euskera*, 17. 157-167. orr.
- 2001, «Pedro Pujana Agirregabiria (Oletan jaio. 1915-VI-28 – Begoñan hil: 2001-II-4)», *Karmel*, 2. 3-21. orr.
- 2000, «Pedro Pujana Agirregabiria Bilboko Liburu-Azokaren ‘Urrezko luma’, 2000-VI-7», *Karmel*, 4. 24-36. orr.
- 1995, «Toponimia», *Karmel*, 211, 1/2. 277-324. orr.
- URKIZA, Julen-URIBARREN, P., 1995 «Gabriel Jauregiren bizitza», *Karmel*, 211, 1/2. 71-104. orr.

Ganbarruetatik Araba euskaldunera

LIZUNDIA ASKONDO, Jose Luis

Euskaltzain osoa eta Gasteizko Toponimia egitasmoaren arduraduna

Patxi Uribarren Leturiaga euskaltzainari erantzunez, nik irakurritako bere lehen lanaren titulutik hartu dut, hots, lizentziaturako tesi txikitik: *Aramaioko **Gainbarruko** Toponimia*, hain zuzen. Baina, nola, hiru **Ganbarru**>**Gainbarru** toponimo ezagutzen ditudan, biokin zer ikusi dituztenak, hiruron deskribapenean ihardungo dut, Iparretik Hegoaldera.

Garai herriko Goierri auzoko alderdi bati **Ganbarru** deritzagu. Hain zuzen, alde horretan egin ditut nire idazlan asko eta hitzaldi hau hasi ere. Eta euskal onomastikan aurkitu dudana –eta urte askotan Euskaltzaindian ofizioz eta benefizioz onomastika asko landu behar izan dut– perlarik bitxia Garaiko Erregistro Zibilean atzemandakoa izan da: MIREN ABERTZALE Gorrotxategi Leturiaga. Patxiren lehengusina propioa berau, aita herriko aguazila zen, oso abertzalea eta izen hori jarri zion alabari. Frankistak herriarekin jabetu zirenean, Patxiren osaba, Balentin, kargutik kendu eta kartzelara eta alabari, Burgosko Gobernu golpistaren 1938ko maiatzaren 18ko dekretuz (ikus 1. eranskina), beste milaka bezala, bai Euskal Herrian eta baita Katalunian izena, bortxaz, gaztelaniara itzuli zioten, baina erdizka MARIA. Erregistroko idazkari frankistak ez zuen jakin, edo jakin nahi, dena aldatzen, «María Patriota», alegia.

Garaiko **Ganbarrutik** Hegoalderantz, Aramaiorantz, abiatuz toponimo esanguratsu asko aurkituko genituzke bidean, Gerediagako Batzar Nagusien mendez mendetako kokalekua, batik bat, baina baita nire herriko Traña-Matiena auzoa ere, Patxiren anaia Xabier adiskide eta eskola lagunaren

bizilekua ere zenbait urtez. Aramaiora oinez joateko ibilbidea segituz, Atxarteko haitzartea igaroz Abadiñoko udal dermioko **Ganbarrua** zeharkatu dugu inoiz, Urkiolagirre (Urkiolamendi) eta Alluitz Aramaioko udalerriko eremuetara iristeko. Abadiñok hamar herrirekin egiten du muga, baina, kilometrorik gehien, Aramaiorekin, Arabarekin beraz. **Ganbarrutik** Polpoleko zelaira iritsiz gero, aukera bat baino gehiago ditugu, bat, Oletako elizatera joateko, ILADATZANZELAIA bi herrialdeen muga dagoen lekutik, Kondebasoetatik zehar. Hain zuzen Mitxelenari atentzioa eman zion toponimo bitxia izan zen, baita, Henrike Knörri ere (zoritxarrez biok ginen leku horretara joateko, baina, beti atzeratu eta atzeratu eta joan zitzaidan bertaratu gabe, nahiz eta aipatu, Pisan, 2002an, XXI ICOS, hots, «International Congress of Onomastic Sciences» delakoan irakurri zuen «Satznamen dans la toponymie du Pays Basque» izeneko txostenean). Bigarren aukera Abadiñoko **Ganbarrutik** Ipiztikuarritik (apezpiku-harri, omen) Gantzaga eta Etxaguen (Patxiren sorlekua) elizateetan Aramaioko **Ganbarrura**>**Gainbarrura** sartuz.

II

Zeren eta Patxiren asmoa, bere tesinaren lanekoa, hau bai zen: bere udalerriko bederatzi elizatek (anteiglesia), zortziren toponimia aztertzea, hots, Ebro isuriko Oleta salbu. Debarroko isuriko gainen barruko, **Gainbarruko**, alegia. 1974ko lana, beraz, ez lehen lana, baina bai garrantzitsuetan sar daitekeena. Eta, gaur, Aramaio haraneko, ez Aramaio konterri/udalerriko **Gainbarruan** gaudenez, hain zuzen, Ibarra izeneko elizate nagusiko San Martin parrokian, gel nadin une batetan eta labor bil dezadan Patxiren biografia eta euskalgintzan emandako xehetasun, pasadizu eta uzta.

Bi Etxaguen dira Araban, bata, Zigoitiko haranean eta bestea Aramaiokoan. Hemengo honetan jaio zen Patxi 1942 urriaren 31n. Etxaguen elizateko auzo eskolan egin zituen bere lehen ikasketak. Gero Zornotzako karmeldarren ikastetxean hasi zuen batxilergo txikia 1954-1956an –orduan-txe ezagutu nuen Patxi, bere anaia eta nire adiskide min Jabierrekin, beheko komentura joan ginen baten– gero, bere ikasketak Alesbesen, Etxanoko

Larrean, Markinan, Gasteizen, Bilboko Karmelon eta Deustuko Unibertsitatean jarraitu zituenak.

Izugarrizko zortea izan zuela aitortzen du, Juan Luis Goikoetxeak egin zion elkarriketa batean, lehen urteetatik euskara lantzeko aukera izan zuelako. Aukera hori aprobetxatzen jakin zuen. Horrela, teologiako ikasketak egiten ari zela GOGOZ aldizkaria jarri zuen abian, karmeldar ikasleen artean euskaltzaletasuna eta alfabetatzea bultzatzeko.

Euskal munduan sartzea, egoera anormala izan arren, normala suertatu zitzaion Patxiri Aita Santi Onaindia, Aita Lino Akesolo, Aita Migel Mari (Markinako bertso-egunak antolatzen zituena), Aita Luki, Aita Fidel, Aita Martin eta beste hainbat karmeldar idazle famatu, sermoilari bikain eta euskaltzale sutsuekin, batzuk kartzela eta desterrua jasandakoak diktadurako agintariengandik harreman zuzenak izatea. Beste euskal ordena batzuetan gertatzen zen bezala euskalkiekin ere harreman estua izateko aukera izan zuen, hain zuzen. Euskarazko eskoletan bi taldetan biltzen omen ziren: bizkaitar-arabarrak (Mendebaldekoak) eta giputz- nafarrak, horrek bere ama hizkera asko aberastuz.

Titulazio akademikoetan, teologia eta filologia erromanikoan lizenziatura, biak, Deustuan eta bietan tesia txikia euskaraz, garai hartan, oso gutxik, diktadorea bizi zela; Euskaltzaindiko «D» eta «B» titulazioak eta oposaketa publiko bidezko lehen itzultzaile ofiziala Bizkaiko Diputazioan (1983).

Euskararen aldeko jarduera nagusiak:

1. **Gogoz** aldizkaria abian jarri eta zuzentzea (1965ean); haurren ipuin unibertsalak ikastoletarako euskaratzea (1955-67).
2. Bilboko Karmelon mezak euskaraz jarri zirenean prestatzeko eta laguntzeko ardura hartu zuen, 1965tik gaur arte. Oraindik teologiako ikasle zela, 1966 urtetik Santutxuko gaueskoletan hasi zen euskara irakasten, eta euskalduntze-alfabetatze lan horretan jardun izan zuen 12 urtetan zehar. Santutxuko euskarako talde hori 1.000 ikasletik gorakoa izatera heldu zen. Ikastolako gurasoentzat euskarako eskolak bultzatzeaz gainera, berak eman zituen lehen aldiz udako euskarako ikastaro trinkoak.

3. Deustuko Irakasle Eskola ofizialean euskara abian jartzen (1976-1983).
4. Bizkaiko Foru Aldundian itzultzailea (1983-2007), oposizioz sartu zen lehena, euskara batua eta bizkaiera bikain igaroz. Geroztik foru administrazioan jubilatua arte izan dituen ardurak, beste administrazio arteko ordezkapen, aholkularitza euskararen teknikari gutxik gaindituko ditu Euskal Herrian.
5. Zenbait erakundetako kide edota aholkulari: **Arabako Kultura Batzordeko** 1971tik zenbait urtez; «**KLASIKOAK**» liburu-sortarako itzuli beharreko liburuak aukeratzeko batzorde kide, Pedro Migel Etxenike buru zelarik Hezkuntza eta Kultura sailburu zelako (1983-84); **Euskararen KONTSEILUAN** «Karmel» aldizkariaren ordezkaria; **EIE / Euskal Idazleen Elkarteko** kide 1983tik; **EIZIE / Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteko** kide 1988tik; hainbat hiztegi, elebakarrak nahiz elebidunak kaleratu dituen **BOS-TAK BAT** kultur elkarteko sortzailetarikoa da. Talde horrek burututako hainbat ikerketa-lanen zuzendari ere bai.
6. **Euskaltzaindian izandako harreman eta partaidetza:** euskaltzain urgazle izendatua izan zenetik (1971-09-24) hainbat bileretan izan da, batez ere Bilbon eta Araban egin direnetan. Hamaika Jardunaldi eta Biltzarretan parte hartu du; Lino Akesolo karmeldar urgazlearen eta Pedro Pujana arabar euskaltzain ohorezkoaren hilberri txostenak bereak dira; 1990an Arabako euskaltzain oso, ohorezko eta urgazleak prestatutako herrialde honi buruzko euskaltasunaren aldeko adierazpeneko partaide; Euskarako titulazioak emateko eraturako lantaldeko kide izan zen 1972an irakasle titulua Euskaltzaindiak sortu zuenean bertatik, baita.

Hizkuntza Akademia honetan batzorde ugaritan parte hartu du: *Irakaslegoa*, *Lexikologia Erizpideen Finkapena (LEF)*, *Onomastika*, *Alfabetatze-Euskalduntzea*, *Elebitasun Harremanak*, *Oinarrizko Euskara*. Une honetan bertan lau batzordetako kide da: Hiztegi Batuko Batzorde Ahaldunduan, Corpusekoan, Sustapenekoan eta Euskalkien Lantaldekoan kide eta Onomastikakoan aholkulari, beraz, erakundeari barru barrutik atxikia. Bestalde, Euskaltzaindiaren izenean epaimahaiko izan da, hain zuzen, itzultzaile eta

euskal teknikarien oposaketetan, Basaurin, Bilbon, Galdakaon, Gasteizen, Getxon eta Gipuzkoako Aldundian.

Euskaltzaindiarekiko atxikimendu sendoa aspaldikoa dela berma dezaket, hasi 60 hamarkadaren bukaeran Erribera kaleko egoitza zaharretik eta Plaza Barriko gaur egungo artio. Ezin ninteke xehetasunetan luza, tamalez, 70 eta 80 hamarkadetako Arbieta eta Elkano kaleetako egoitzetako lan-harreman eta ekintzetan. Juanjo Zearretak, bizirik balego, gustura azalduko lituzke baina hemen izango ditugu Rikardo Badiola, Juan Luis Goikoe-txea, Jon Aurre, Pello Telleria, Gotzon Aurrekoetxea, Luis Baraiazarra, Txomin Solabarrieta eta beste zenbait, Euskaltzaindiko langileak barne. Bere biobibliografiari erreparatzen badiozue, argi ikusten da erakunde akademikoarekin izan duen partaidetza leial eta oparoa.

IKER LANIK garrantzitsuenak aipatzearren lexikografian «Bostak Bat» taldeko kideekin zenbait datu-base (UZEI eta beste) eta 180 liburu aztertu hiztegitzako ikerketa baliagarri. Orobat, Lino Akesoloren lexikoaz, Azkueren hiztegi hitz komunez, Oinarrizko Hizkuntza baliabideez (metodoak, haur-gaztetxoentzako hiztegiak), Bizkaiko hamahiru herritako grabaketez, euskal aditzaz (batua, bizkaiera, zuberera) egindako azterketa eta ikerketak.

IDAZLANEZ, Patxiren bibliografia oparoa bera aurkeztu genuenetik ezagutzen dute euskaltzain osoek. Gainontzeko: familiako, aramaioar, euskaltzain ohorezko eta urgazle, herri ordezkari, agintari eta adiskide ezin dizuet zerrenda luzea irakurri; gero, *EUSKERAn* argitaratuko da. Euskaltzaindian, *EUSKERA* Agerkari ofizialean, *IKER* bilduman idatzi du, ikus dezakezuen; «BOSTAK BAT» kultura taldean hiztegitzian partaide zuzena izan da; beste argitalpen solteetan ere idatzi du; baina, emaitzarik erraldoiena *KARMEL* aldizkarian atzemango duzue, hasi aldizkariaren bibliografia osoa (1931-2007) eta segi ikerketa, dibulgazio, itzultzaile eta lankidetzan lan eta abar (*Ikus* eranskina amaieran).

Uribarren euskaltzainak sehaskatik duen Aramaioko euskara, karmeldarren ordenan lehendabizi, baina, unibertsitatean, Euskaltzaindian, Foru Administrazioan, irakasle lanetan, hiztegitzian eta liburugintzan landu eta ondu du goiko mailaraino bibliografian nabarmentzen denez. Komenta-

rio esanguratsu batekin biribildu nahiko nuke kapitulu hau: Patxi, «*Euskal kulturgintza 60. hamarkadan*» izeneko nire sarreran hitzaldian aipatzen nuen euskalgintza belaunaldiko herri gizon bat dela, aurreko belaunaldiko pionero eta maisuen: San Martin, Mitxelena, Villasante, Satrustegi, Aresti eta abarren segidakoa. Jubilatuta izan arren, hurrengo belaunaldikoekin –euskal filologia lizentziaturez eta doktoradutzez ondo hornitutakoekin, batik bat– zubi egin eta eskuz esku, katea eten gabe, euskalgintzan lanean diharduena.

III

ARABA EUSKALDUNERA

Askori entzun diot topiko hau: «*Arabaren euskaldungoaren berezko eremua Aramaioko eremura mugatzen da. Egia da, gaur egun, hiriburuan -eremu erdaldunean noski- euskaldun ugari bizi direla baina gehienak giputzak direla eta gero euskaldun berri mordo bat*». Topiko horren aurrean behin baino gehiagotan haserretu naiz eta neure bizipen, lekukotasun edo ikerketak azaldu dizkiet bati baino gehiagori, gezurtatuz edo argituz Arabako euskal eremu garaikidea, XX. mendekoa, Aramaioko Gainbarrua baino zerbait gehiago dela. Labur bilduz aipa ditzadan:

Bermeo-Lekeitio-Ondarroa portuetatik, Erdi Arotik dokumentatuta dagoen bidea, Durango-Gasteiz errepidetik abiatzen bagara, Arabako euskararen iparralderen dagoen etxea, errepede horren ibaiaren bestaldean dugu: Itzagabbarri. Arabako euskara egiten dute. Zeren eta Aramaioko Gainbarruko euskara Mendebaldeko euskara bada ere, Kandido Izagirre euskaltzain urgazle zenak esango zuen bezala «*leintzitarra*» da, Arrasatekoa bezala, Amaitermin auzokoa da, geografikoki, Itzagabbarri, baina Arabako probintziakoa. Administratiboki Durangaldeko eta Arratiako, Amaitermin. Otxandio eta Ubideko euskarak ere, Arabakotzat jotzen dira, Oleta eta Legutiokoen kide.

Oleta Arabako eremu euskaldunean dagoenik inork ezin du ukatu. Esker-rak bertako seme eta euskaltzain ohorezko Pedro Pujanari elizateko hizkera

ondo ezagutzen dugu. Baina gure gaurko xedea ez da hori, eremuaren euskalduntasuna baizik. Arestian aipaturiko topiko eta ezjakintasunaren lekuko, hara zer gertatu zitzaidan Bilbon, Euskadiko «Comisiones Obreras»-en egoitzaren inaugurazioan. Espainiako CCOOko Idazkari Nagusi Antonio Gutierrez eta han gonbidatuoi ongi-etorria euskaraz eta erdaraz egin zigun Santi Bengoa Euskadiko Idazkari Nagusi oletarrak. Ekitaldi ostean donostiar parlamentari batek eta historialari bilbotar batek, biak batera:

- *Bengoa ez al da ba arabarra?*
- *Bai, arabarra da eta Arabako euskararen hitz egin du.*

Uste zuten gasteiztar euskaldun berri bat zela, hiriburuan bizi baita, eta mendebal euskararen mintzatukeran bizkaitar euskaldun zahar bat zela. Araba herrialdearen geolinguistika garaikidearen leziotxo bat eman nien biei, bai, Santi Bengoa haurtzarotik arabar euskaldun bat zela eta dela. Beste behin, Arabako Batzar Nagusietan H. Knörr, Manu Ruiz Urrestarazu eta hirurok, foru erakundearen euskararekiko ikerketa-eraso baten ondorioz agerraldi bat egin genuen –Andres Urrutiak, idatziz bidali zuen bere txostena– eta nire txostenaren hasieran Arabako euskararen egiten saiatu nintzenez, amaieran, *Correoko* kazetari bat hurbildu zitzaidan, elkarriketa bat eskatuz:

«Bihar edo etzi, posible nuke, zuri elkarriketa bat egitea? prest nengoke Durangoraino joateko». «Ez, bide erdi egingo dugu, Araba partean egingo dugu».

Oletako Herriko tabernan bildu ginen eta hauxe adierazi nion:

«Oletak Araban seiehun urte dirau, Arabako Errioxak baino gehiago. Eta Oleta, izango da, seguru asko, Arabako Administrazio Bartzorde (kontzeju-elizate) %100 euskaldun bakarra».

Bistan da, Gasteiztik kanpoko euskal eremuaz zuen topikoa erori zitzaiola. Azkenik, oraintsu, *Euskadi* Irratian elkarriketa bat egin zioten Mainer Unda kirolari olinpikoari eta hain natural euskaraz egiten zuena Oletako arabar bat zela ez ziren ohartu, entzule gehienak ere ez, seguru asko.

Legutioko Udalerriak zazpi kontzeju ditu. Euskalduntasuna, ondo kostata gorde du. Lau aipamen horretaz:

1. 1965ean antolatu genuen Durangon lehen Euskal Liburu eta Disko Azoka eta bi liburu sinbolikoki saritu, erdarazkoetan, *Sociología y Pastoral de la Diócesis de Vitoria* zen. Liburu hau ikerketa baten ondorioa zen, zeinetan Legutioko parrokoak aitortzen zuen elizan aitortza gehiago egiten zirela euskaraz, erdaraz baino. Zehaztu behar da 60 hamarkadan ez zela euskaraz ezer egiten, ez sermoirik ez beste, gaztelaniaz dena eta, argi dezadan, jakin nuela erretorea ez zela abertzalea, leinztar karlista ideologikoa, erregimenekoa, beraz. Lehen aipaturiko Batzar Nagusietan bota nuen hori Amando de Miguel soziologoa gezurtatzeko eta lekukotzeko, Legution, gerra ostean, euskarak jasan-dako zapalkuntza nabarmentzeko, alegia, administrazio, eskola eta elizatik, hots, eremu publiko guztietatik ezabatuta, katakunbetan, konfesionariotan bakarrik zutela billerlarrek bere mintzaira propioa egiteko aukera.
2. 1950 hamarkadan Elosuko errotariak, urtegiak bere etxaldea itoko zuen bezperetan nire aititari idi pareta saldu zion eta, ni, mutikoa, berarekin joan nintzen, gogoan dut errotakoen samina eta nola euskaraz berba egiten zuten.
3. 1969 edo 1970ko ekainaren 13an, San Antonio erromes egun famatua Urkiolan. Bertan, urtero bezala, ahari feria berezia –iaz ere ikusi nuen– herriko albaitariarekin nengoen eta eskatu zidan furgoneta batetik aharriak jaisten zebiltzanei esateko Bizkaian epidemia bategatik debekatuta zeudela feriak. Hurbildu nintzen, gipuzkoarrak izango zirelakoan eta euskaraz hitz egin nien. Konturatu nintzen hizkeraz ez zirela giputzak, arabarrak baizik:

«Urrunagakoak gara. Gure artean euskara gutxi egiten dogu, baina, jakin badakigu».

Kontura gaitezen Urrunaga, Legutiotik hegoaldera dagoen herrixka dela, Gasteiztik dozena bat kilometrora egongo da. Seguru asko, Txomin Jakakortajarena apaiz euskaltzale berastegierra, gerra arte, bertan ego-teak, lagunduko zuela herri honetan euskarari eusteko.

4. Duela hamar bat urte hil dira Urbina herrixkako azken euskaldun zaharrak, Gasteiz udalerriko mugatik kilometro bi eskasera, Arabako Lautadan, euskararen eremu garaikidea, beraz.

Ubarrundia Udalerriko bost herrik udalerrri bat osatzen zuten gerra ostean, Arratzuarekin bilarazi arte. Beste sei, ordea, antzinatek Gasteizek bereganatu zituen Ubarrundiako beste sei herriren ikerketa toponimikoa bukatzen ari gara une honetan Elena Martinez de Madina, Roberto Gonzalez de Viñaspre eta hirurok, hain zuzen Gasteiz Udalerrri erraldoiko (277 km²) hirugarren liburukia argitaratzea prestatzeko. Bildutako 33.000 toponimo erregistrotik 1.370 hautatu ditugu. Ondorioz esan nezake, %80 leku-izenetik gora zeharo euskaldunak direla eta kenduko bagenu 1870. geroztik agertu berri direnak, portzentaia ehunetik ehunera hurbilduko litzateke. Beraz, sei herri horiek: *Gamarranagusia*, *Gamarragutxia*, *Erretana*, *Amarita*, *Miñao* eta *Miñaogoi*en euskal eremuan izango ziren XIX. mendean amaieran eta, ia seguru, XX. mendean hasieran *Miñao Urbinatik* bi kilometro eskasera baitago. Gai hau hobeto garatzeko asmoa dut liburuki horren sarreran, hiriburuaren aterainoko (*Portal de Gamarra*) euskalduntasunaren froga gisa.

Arabako herrialde honek, Gipuzkoak ez bezala eta Bizkaiak baino gehiago, hiriburuaren makrozefalia jasan du, zerbitzu guztiak zentralizatuz. Ondorioz, XIX. mendean auzitegi alderdi edo partido judizialak sortu zirenean, Frantziako «*arrondissement*» delakoen antzera, Araban bost jarri ziren: *Gasteiz*, *Amurrio*, *Guardia*, *Añana-Gesaltza* eta *Agurain*. Azken biok Gasteizen zentralismo erraldoiak irentsi zituen aspaldi eta Guardia, duela hamabost bat urte. Esango didazue zertan dakardan gai hau hona. Ba hara: 1841. urtean, Aguraingo 1. mailako Auzitegiko akta liburuan agertzen denez, epailegaz gain sei funtzionari agertzen dira, bat «Intérprete, Ignacio Aristimuño» izenekoa. Elebitasun ofizialik ez zegoenez, horrek argi eta garbi hau erakusten du, Aguraingo eskualde hartan elebakarrak zeudela. 1848ko Arabako mapari begiratzen badiogu, Aguraingo auzitegi alderdiak ekialdeko Lautada osoa eta Kanpezu kuadrilaren iparraldea hartzen zuen. Hara hor, aspalditik erdararen eremuan kokatzen genuen eskualde horretan euskaldun hutsak bizi ziren froga argia, itzultzaile funtzionaria zuela XIX. mendean erdian. Ikerketa sakonago baten ondorioz

datu zehatzagoak aterako lirateke eta, seguru asko, herri baten baino gehiago, oraindik XX. mendearen hasieran bertako euskaldunak aurkituko lirateke.

Gauza jakina da, bestalde, XX. mendean euskaraz egiten zela, beraz, gure historia garaikidean, *Zigoitia* haranean eta R.M. Azkuek bizirik zeuden hizkak bildu zituela bere Hiztegi erraldoi famatuan *Bzig* ezaugarriarekin. Oraindik, Gerra ostean, euskaldun zahar banaka bat *Sanpedro-Gorostitza* auzoan entzuna dugu.

IV

ONDORIO ZENBAIT

Azkenik, zenbait ondorio atera nahi nituzke:

- Gure hizkuntza propioaren geolinguistika ikuspegitik Arabaren euskal eremu garaikidea ez dela hain txikia.
- Euskara Normalizatzeko Oinarrizko Legeak ez duela inoiz lurralde historikorik aipatzen, zonaldea/eskualdea baizik. Ondorioz, Administrazio orok beharko zuketean eta lukete hori kontuan izan, adibidez, Hezkuntza Sailak, Osakidetzak, Eustatek, foru sailek eta beste erakunde publikoek.
- Soziolinguistika ikuspegitik hizkuntza normalizazio plangintzetan ez zaio erreparatu euskararen galera historikoan, txosten honetan aipaturiko Arabaren eremu euskaldun garaikideak, zer rol edo eginkizun joka zezakeen. Eskualdearen lidergoa, aramaiorrei tokatzen zitzaizuen/zai-zue, udalerrri hau delako indartsuena.
- Alde horretatik, Patxi Uribarren Aramaioko arabarra euskaltzain oso proposatu genuenean, faktore horiek ere kontuan izan genituen. Eta hizkuntzaren normalizazioan, ene ustez, Arabako euskal eremu garaikide hau, gehiago ikertu behar zen, Euskaltzaindian bertan ere. Aspaldi adierazi nuen Euskal Hizkeren Hizkuntza Atlasean ez zela zuzena Araban, Aramaioko Gainbarru honetan bakarrik ikerketa egitea, baita Oletan eta Legution ere. Orobat, estandarizazio prozesuaren

ildo estrategikoan, bertako euskalkia jagon ere, ez bakarrik Bizkaiko Jaurerrikoa.

- Amaitzeko, horrek ez du kentzen, alderantziz baizik, hiriburuan jokatzen duela euskarak bere etorkizun nagusia, bai normalizazio soziolinguistikoa eta ikerketan. Zeren eta geroago eta hobeto hornituago baitugu hiriburua, bai demolinguistika ikuspegitik, baita irakaskuntza maila desberdinetan, Euskal Herriko Unibertsitatearen Filologia Fakultatean, bereziki. Ez bakarrik, geroago eta gehiago, sortzez arabarrak direnez hornitua, beste euskal herrialdeetatik joandakoak ere, tartean, Euskaltzaindiari dagokionez lau euskaltzain oso eta bederatziz urgazle bizi baitira Araban. Baina, gaur eta hemen, euskararen eremu garaikide hau jagonez.

* * *

ERANSKINA

Izen-deiturak: PATXI URIBARREN LETURIAGA

Jaioterria: ETXAGUEN – ARAMAIO (ARABA)

Jaioteguna: 1942-XII-31

1. Ikasketak

- **Lehen urratsak:** auzoan bertan.
- **Batxilergo txikia-1/2:** 1954-1956 (lehen bi mailak) Zornotzan. 1957-1959 (azken hiru mailak) Nafarroako Alesbesen
- **Batxilergo nagusia:** 1961-1962: Markinan
- **Filosofia-Teologia:** (7 urte) Gasteizeko eta Bilboko Karmeldarren etxeetan. Azken bi urteak Deustuko Teologia Fakultatean, **Teologian lizentziatura (1969)** lortuz.
- **Linguistika erromanikoa** Deustuko Unibertsitatean **(1969-1974)** lizentziatura eskuratuz.
- **Linguistikako zenbait alor euskaraz** UEU-n hainbat urtetan zehar.
- **Teologia (1969) eta linguistika (1974)** alorretako lizentziaturetarako **bi lanak (tesi txikiak)** euskaraz.

2. Euskarako ikasketak

- **Alfabetatzea 1/2:** Zornotzan, astean hiru ordu, eta Alesbesen astean bi ordu, gainerako ikasleek marrazki-lanak edota eskulanak ikasten zituzten bitartean.
- **Alfabetatzea 3:** Markinan, eskola-orduen barruan, ikasle euskaldunek lau ordu euskaraz, gainerakoek grekoa ikasten zuten bitartean. Hemen idatzi zituen lehen bi idazkiak euskaraz, bata, *Karmel* aldizkarirako, eta, bestea, ikaskideen aurrean irakurtzeko.
- **Alfabetatzea 4:** Begoñan, Teologia-garaian eskola orduetatik kanpo. Hemen euskal taldeko ikasleek GOGOZ aldizkaria jarri zuten abian. Garai horretan bi sari lortu zituen: Olerki-saria Iruñeko lore-jokoetan (1966?) eta Prosa-saria Zornotzako lore-jokoetan *Karmeldarrak euskal literaturan* (1967) lanarekin.
- **Alfabetatzea 5:** *Euskerazaleak* taldeak antolatutako alfabetatze ikastaroetan. Diploma jaso zuen Eusebio Erkiaga jaunaren eskutik.
- **Sakontze lana:** Udako Euskal Unibertsitatean, linguistikako gaiak euskaraz jorratuz. Hiru urtetan irakasle-lanetan ere jardun izan zuen «D» eta «B» mailetarako ikastaroetan nahiz linguistika alorrean.

3. Titulazio akademikoak

- **Teologia-lizentziatura:** tesi txikia euskaraz
- **Linguistika-lizentziatura:** tesi txikia euskaraz (Aramaioko toponimia-ri buruz)
- **Euskaltzaindiko «D» eta «B» titulazioak** (1972-III-9)
- **Oposaketa publiko bidezko itzultzaile ofiziala Bizkaiko Aldundian** (1983)

4. Euskararen aldeko jarduerak: (1966-1980)

1. **Gogoz aldizkaria** abian jarri eta zuzentzea (1965-1968).
2. **Ipuinak euskaratzea:** Teologia garaian, ikastoletarako irakurgaiak (haurren ipuin unibertsalak) euskaratu zituen ikasle taldeko kide izan zen (1966-1967).

3. **Karmelon (Bilbo) euskal meza abian jarri zenean (1964-1965)** mezako iruzkin/otoitz/oharrak euskaraz prestatzeko ardura izan zuen. Geroago, apaiz egin ondoren, euskal mezaren ardura nagusia izan du gaur arte.
4. **Alfabetatze-euskalduntze lanak:** Santutxuko gaueskolak sortu ondoren (1966) lehen urtetik bultzatzaile eta arduradun izan zen 1980ra arte. Gaueskola horiek garrantzi handikoak izan ziren, 1974-1975 ikasturtean 1.000 ikasletik gora biltzea lortu zutelarik: eskola horiek, ikasleei aukerak emateko, goizko lehen orduan, bazkalostean eta arrasti/gauean ematen ziren. Bertan burututako lana:
 - Gelak eta irakasleak lortzea, prestatzea nahiz lankidetzan talde desberdinen arteko koordinazioa bideratzea.
 - Euskararen irakaskuntza hobetzeko materiala prestatzea, eta metodoak berriztatzea bultzatzea (*Euskalduntzen* prestatu zen).
 - Euskal Herriko udako lehen ikastaro trinkoak abian jarri zituen, beraietan irakasle-lanetan jardunez (Arratian, Markinan, Aramaion, Arrazolan).
 - Alfabetatzen zirenak nahiz euskalduntzen zirenak ikaste-prozesua bukatu ondoren irakasle bihurtzeko ikastaroak antolatzea
 - Bilbo eta inguruko beste gune batzuetan adinekoentzako eskolak ezartzea bultzatzea (Bolueta, Zurbarranberrin, Galdakaon, Basaurin...)
 - Adinaren ondorioz ikastolara joaterik ez zuten haurrentzat euskalduntzeko eskolak antolatzea.. Hauentzat udako ikastaro proposak antolatu ziren Markinan.
 - Ikastolako gurasoak euskalduntzeko eskolak jartzea, 300 guraso baino gehiago ibili zirelarik euskara ikastean.
 - **Euskara ikastetxe eta eskoletara eramateko batzordeko kide izanik**, inguruko ikastetxeetan, hasieratan orduz kanpo, euskara abian jartzeko lanetan jardun izan zuen.
 - **Karmelo parrokia sortu ondoren**, kultura alorreko arduradun izanik, gazte taldea, batez ere *Garztedi* dantza-taldea euskalduntzeko bideak jartzen ere saiatu zen, orduko gazte gehienak euskaldun direlarik.

5. Deustuko Irakasle Eskolan euskara abian jartzen: (1976-1983)

Bertara Euskaltzaindiak eskatuta joan zen. Honako hauek bideratu zituen:

– 1976-1977 ikasturtean:

- **Lehen urratsa:** euskara ikasi nahi zutenei eskola-orduz kanpo nahiz eskola orduen artean eskolak eskaintzea izan zen, irakasle gehienak Unibertsitateko EKB-ko kideak izan zirelarik.
- **Programazioa:** Aita Villasante euskaltzainburuarekin batera erretorearekin elkarrizketatu ondoren, euskal filologia ezartzeko programa prestatzeko ardura hartu zuen; abian jarri zen Salamancan ari zen Koldo Mitxelena jaunaren oniritzia jaso ondoren.

– **1977-1978 ikasturtea: irakasleak kontratatzea:** euskalduntze-planak aurrera eramateko lau irakasle kontratatu zituen unibertsitateak mehezimenduzko ageriko deialdia eginez. Epaimahaiburu Koldo Mitxelena izan zen..

– **1978-1979 ikasturtea:** abian jarri ziren **euskal filologia** eta **euskal adarrak**, euskaldun ikasleei ikasketak euskaraz era ofizialean egiteko aukera eskainiz. Gainerako ikasleentzat (aurreko kurtsuotakoei) euskara eskola-orduen barruan jartzea lortu zuten, horretarako zenbait irakasle lizentziatu kontratatu zirelarik.

– **Ikastaro trinkoak (1976-1982):** euskal irakasleen premia oso gorria izanik, urte guzti horietan udako ikastaro trinkoak prestatu zituen euskaldunentzat, euskarako titulua lor zezaten eta goi-mailetako erdaldunek beren ikasketa-prozesua burutu zezaten. Ikastaro horien antolatzailerik, arduradun eta irakasle (beste zenbaitekin batera) izan zen. Horretarako Hezkuntza Zientzien Institutuaren (HEZI) laguntza oparo jaso zuten. Udako ikastaro trinko horietan 400 ikaslek baino gehiago parte hartu zuten. Gehienak Aramaioko Etxaguen auzoan eman ziren.

– **Irakasle Eskolan irakatsi zituen gaiak:** *Alfabetatzen I/II* (idazkera eta abar), *Dialektologia* eta *Morfosintaxia*. Ikastaro trinkoetan: hizkuntza ariketak ere bai, horretarako ariketa-sorta handi bat prestatua baitzuten. Gainerako gaietarako pertsona gaituak ekartzen ziren.

6. Itzultze-lanetan Bizkaiko Foru Aldundian: 1983-2007

Itzultzaileari berezkoak zaizkion eguneroko lanez gainera hauek burutu izan ditu:

- **Jose Maria Makua diputatu nagusiak eskaturik**, euskarak Aldundian zuen egoera aztertu, eta txosten bat prestatu zuen Kontseilurako, euskarari idatzizko harremanetan nahiz ahozkoetan benetako lekua egiteko bideak proposatuz. Ondorioz, *Aldizkari Ofiziala* euskaratzeko bideak jarri ziren berehala; urte bi beranduago funtzionarioen euskalduntzea bideratzeko teknikariak ekarri ziren HABE-tik.
- **Itzultzaile berriak hartzeko proiektua eta azterketetarako programa prestatu zuen**. Programa hori, geroago, hainbat itzultzaile-oposaketetan erabilia izan da, esaterako Nafarroako gobernurako egin ziren oposaketetan.
- **Toponimia alorrean aholkularitza eskaini izan die alorreko teknikari**, besteak beste Aldundiak Euskaltzaindiko onomastika batzordearen laguntza onartua izatea lortuz. Horren emaitza ditugu *Bizkaiko mapa* berria, Urkiola, Gorbeia eta Urdaibaiko Parkeetarako eginiko zenbait mapa, ibilbide, kartel eta abar.
- **Bizkaiko Aldundiaren ordezkari** izan da hainbat urtetan Eusko Jaurlaritzak eraturako Toponimia batzordean.
- **Herri Erakunde desberdinen artean Nekazaritzako hiztegia egin zenean**, Bizkaiko Aldundiko Nekazaritza Saileko teknikari alfabetatuen arteko koordinazio lana burutu zuen.
- **Aldundiaren izenean itzultzaile eta euskal teknikarien zenbait epaimahai ofizialetan parte hartu izan du**, erakunde barruko zenbait azterketetan nahiz kanpokoetan: Getxon, Eusko Jaurlaritzan,...
- **Aldundiak argitaratutako zenbait argitalpenen zuzentzaile ere izan da**, batez ere Nekazaritza Sailekoena: *Erlazaintzarako oinarrizko ezaguerak*, *Bizkaiko Mendiak*, *Santropoko Zingira*, *Pagoa*...
- **Langileen zenbait txosten publikoren prestatzailea ere izan da**, hala nola, *Korrika* egintzaren alde prentsan argitaratutako idazkiena.

7. Zenbait erakundetako kide edo aholkulari

- **Arabako Kultura Batzordeko kide, 1971eko udazkenean izendatuta**, hainbat urtetan zehar, honako hauetan jardunez:
 - Aramaioko ikastola ofizial bihurtzeko lanetan nahiz Araban sortzen ari ziren ikastolen aldeko jardunetan.
 - 1974-1975 ikasturtean zehar, Aramaioko toponimia-lanaren argitalpena prestatzen. Azkenean ez zen argitaratu, politika mailan izandako aldaketen ondorioz.
 - 1976an toponimia biltzeko programa jarri zuen abian, Deustuko ikasle batzuekin Agurain ingurukoa biltzea antolatuz.
- **«KLASIKOAK» liburu-sortarako itzuli beharreko liburuak aukeratzeko sortutako batzordeko kide izan**, Pedro Migel Etxenike buru eta Xabier Mendiguren idazkari zirelarik, «KLASIKOAK» liburu-sortako lehen ehun liburuen aukeraketan parte hartuz.
- **Euskararen «KONTSEILUA» lanean**, *Euskararen Unibertsoari buruzko jardunaldietan* parte hartu. **Estatutuak zehazteko batzordeko kide** izendatu zuten eta bertan jardun izan du 1998an sortu zenetik *KARMEL* aldizkariaren ordezkari-lanetan.
- **EIE / Euskal Idazleen Elkarteko kidea da**. Elkartea 1982ko udazkenean sortua izan ondoren, idazleoi egin zitzaien deialdiari erantzunez, bertako kide egin zen 1983ko martxoaren 21ean.
- **EIZIE / Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteko kidea da**. Elkartea 1987an sortu ondoren, itzultzaileei eginiko deialdiari erantzunez, bertako kide egin zen 1988ko urtarrilaren 18an.
- **«Bostak Bat» kultur elkarteko sortzailetariko kidea da**: Euskaltzaindiko «D» eta «B» tituluetarako ikastaroak jendeari (bereziki ikastoletako irakasleei) eskaintzen zenbat urte egin ondoren, hiztegien proiektu berria abian jarri zuen irakasle-taldeko kide sortzailea da. Aurrerantzean, *Bostak Bat lantaldean* jardun izan du lanean. Taldeak burutako izan dituen hainbat ikerketa-lanen zuzendari izan da.

8. Euskaltzaindiarekin izandako harremanak labor bilduta

Euskaltzaindikoko urgazle izendatua izan zenetik (1971-IX-24):

- **Hileroko aktetan ageri denez** hainbat bileretan izan da, batez ere Bilbon eta Araban egin direnetan. Aldundian lanean hasi zenetik ezin izan du, nonbait, Donostiara joan, Aldundiko lan-ordutegi estuaren ondorioz.
- **Hainbat jardunalditan ere parte hartu izan du.** Hala agertzen da aktetan: Elgoibarren (1973-I-28); Arrasaten (1973-VI-21); Bergaran (1978-IX-7); Arrasaten (1979-XII-20); Donaixti-Ibarren, -dialektologia- (1982-IV-18); Markinan, -atlas linguistikorako biltze-batzordea- (1983-IX-25); Gasteizen, -dialektologia- (1985-I-25); Plentzian -hitz-elkarketa- (1987-I-31); Deban -onomastika-; Oñatin (1993-X-1) *Ohiz kanpoko batzarrea Euskaltzaindiaren 75. urteurreneko ospakizumen Hasiera ekitaldian*; Leioan (1994-X-3/7); Bilbon (2001-IX-17/19an) *Euskaltzaindiaren Nazioarteko XV. biltzarrean...*
- **Hainbat euskaltzainen sarrera-ekitaldietan, hiletetan, hilberri-txostenak irakurri izan direnetan** (Lino Akesolorena eta Pedro Pujanarena bereak dira) parte hartu izan du, nahiz bestelako egintza konkreturen baterako eskabidea egin zaionean; esaterako, 1990ko azaroaren 8an, *Arabako euskaltzain oso, ohorezko eta urgazleek Euskaltzaindiaren Jagon Sailarekin egin zuten adierazpenean...*
- **Zenbait batzordetan parte hartu izan du**, batzordekide lanetan edota aholkulari lanetan: *Irakasleria, Lexikologia, Onomastika, LEF...*
- **Euskarako titulazioak emateko eratutako lantaldeko kide izan zen hainbat urtetan.** 1972ko ekainaren 30ean Alfabetatze Batzordearen Oinarrri Arauak onartu eta gero irakasle titulua eskuratu ondoren, Euskaltzaindikoko «D» eta «B» titulueterako epaimahaiko kide lanetan aritu zen urteetan zehar, jardun hori Eusko Jaurlaritzaren esku utzi zen arte.
- **Euskaltzaindiaren izenean epaimahaiko ere izan da behin baino gehiagotan**, itzultzaile eta euskal teknikarien oposaketetan: Basaurin, Getxon, Bilbon, Gasteizen, Galdakaon, Gipuzkoako Aldundian...
- **Euskaltzaindiak hizkuntzen irakaskuntza eta oinarrizko euskara aztertze**ko Imanol Berriatua gidari zela Israelera egindako bidaian ere parte hartu zuen.

9. Ikerlanak (garrantzitsuenak)

- **Elizkizunetarako irakurgai-liburuen ikerketa (1984):** eliz liburuen Bizkaiko, Gipuzkoa/Nafarroako eta Iparraldeko bertsioetan bat datozen hitzen zein ezberdinen berri zehatzak jakiteko.
- «**Bostak Bat**» taldeko kideekin batera, zenbait asteburutan **UZEI-ko datu-baseko lexikoa** (batez ere ikastoletako 225 testutatik jasoak aztertuz) jasotzen aritu zen **(1984-1986): Euskararako Hiztegia** definiziozko euskal hiztegi prestatzeko. Beste zenbait ikerketa ere burutu zituzten.
- «**Bostak Bat**» taldekideekin batera, **180 bat liburu (batez ere gazteen irakurketa-liburuak) aztertzen parte hartu zuen (1993) Europa Hiztegia** prestatu zutenean.
- **Lino Akesoloren lexikoaren ikerketa (1995) egin zuen, Bostak Bat lantaldeko** lanetan bizkaieraren presentzia moderno txertatzeko asmoz.
- **Azkueren hiztegiko hitz komun bilketa eta azterketa ere burutu zuen (2005), Txomin Solabarrieta lankidearekin batera.**
- **Oinarrizko Hizkuntza baliabideen azterketa (2006):** 38 oinarrizko euskal iturri (euskal metodoak, haur-gaztetxoentzako hiztegi eta zerrendak...) aztertuz burututako ikerlanaren programatzailea eta arduraduna izan zen.
- **Euskalkiei buruzko ikerlanen emaitzak gizarteratzea (2006):** Bizkaiko 13 herritan egindako grabaketak laukietara eramanez konparatzean dartzan lanaren antolatzaile, koordinatzaile eta bateratzailea izan zen.
- **BOSTAK BAT taldearen datu-basea, Euskaltzaindiko Euskara Batuko lantaldeak proposatutako sarrerekin erkatu eta horien arabera jartzeko ikerlana egin du (2007-2008), 3000 HIZTEGIA horren arabera zuzendu eta egokitzea bideratuz.**
- **Euskal Aditza – Trinkoa eta laguntzailea- (Batua – Bizkaiera – Zuberera) (2005-2006).** Aditza (adibide eta guzti) hiztegi eran kontsultatze bideak ematen dituen lanaren prestatzailea, zuzentzailea eta, bertan jasotzen diren eskemen egilea izan da.

10. Idazlanak

EUSKERA Euskaltzaindiaren Agerkari ofizialean

- *Aramaionako euskearen berezitasunak, euskal idazleak eta euskeraren egoera eta etorrera*; Euskara, 17. libk. (1972) 157-167 orr.
- *Aita Lino Akesolo Olibares (1911-1991)*; Euskara, 36. libk. (1991, 3) 1189-1201 orr.
- *Euskararen ibilbidea Foru Aldundietan*; euskara, 39. libk. (1994, 1) 129-141 orr.)
- *Aita Gabirel Jauregi Uribarren* (omenaldiko liburuaren aurkezpena; Euskara, 40. zk. (1995, 2-3) 703-706 orr.
- *Pedro Pujana Agirregabiria (1915-2001)*; Euskara, 46. libk. (2001,1) 489-495 orr.
- *Euskara Araban,*

IKER –Hizkuntza gaiak

- *Euskal dialektologiaren atarian*; Iker, 2, 613-623 orr.
- *Eliz liturgia eta euskara batua*; Iker, 6 (1992) 483-494 orr.
- *Bostak Bat lantaldea*; Iker, 19 (2008) 349-353

«BOSTAK BAT» Kultur Taldean argitalpen hauetan parte hartu du

- **1983**: *Sinonimoen Hiztegia* (I). **Adorez 1.** (8.964 sarrera).
- **1986**: *Euskararako Hiztegia*. **Adorez 2.** (mota honetako lehena).
- **1988**: *Sinonimoen Hiztegia* (II). *Antonimoduna*, **Adorez 3.** (19.783 sarrera).
- **1990**: *Euskararako Hiztegia*. *Oinarritzkoa*, **Adorez 4.**
- **1991**: *Eskola Hiztegia*. *Irudiduna* (I). **Adorez 5** (haurrentzat prestatua)
- **1993**: *Europa Hiztegia*. *Eskola berrirakoa*. **Adorez 6**
- **1996**: *Diccionario 3000 Hiztegia* (I), **Adorez 7** (elebiduna)

- 1999: *Sinonimoen Hiztegia* (III), *Antonimoduna*, **Adorez 8**. (36.703 sarrera)
- 2001: *Diccionario escolar 3000 Eskola Hiztegia*. **Adorez 9** (elebiduna)
- 2002: *Diccionario 3000 Hiztegia* (II), **Adorez 7** (elebiduna; berriztatua)
- 2005: *Eskola Hiztegia*. *Irudiduna* (II). **Adorez 5** (zeharo berriztatua)
- 2006: *Euskal Aditza*. **Adorez 10** (Patxi Uribarrenek hiztegi-eran antolatua)
- 2009: ADOREZ hiztegiak (handia), **Adorez 11** (elebiduna, zeharo gehitua)
- 2011: ADOREZ hiztegiak – Motxilako hiztegia, **Adorez 12** (elebiduna)
- 2011: ADOREZ hiztegiak – Euskal Hiztegia, **Adorez 13** (oinarrizkoa definiziozkoa)

CD-ROM formatuan

- 1995: *Europa Hiztegia*, **Adorez 6**. (honelako euskarrian eginiko lehena).
- 1996: *Diccionario 3000 Hiztegia*, **Adorez 7** (elebiduna)
- 1999: *Sinonimoen Hiztegia*. *Antonimoduna* (III), **Adorez 8**
- 2001: *Diccionario escolar 3000 Eskola Hiztegia*, **Adorez 9** (elebiduna)

Internet-en²

- 1996-2006: *Diccionario 3000 Hiztegia*, www.euskadi.net/euskara
- 1999-2006: *Sinonimoen Hiztegia*, www.euskadi.net/euskara

Inoren liburutan argitaratutako idazlanak

- JUAN SAN MARTIN/SERAFIN BASAURI: *Hegatsaz*: Kuliska Sorta (1971); Patxi Uribarren: *gazteria bultzaka*, 293-300 orr.
- Patxi Uribarren: *Aita Santi Onaindia: gizona eta obra*; JAKIN 53 zk. (1989) 141-164 orr.
- JUAN LUIS GOIKOETXEA – BENGONÑA BILBAO: *Imanol Berriaturaren bizitza euskalduntzearen ezteandan 1970 – 1980*; Mendebalde Kultura Alkartea – Ateka Aztergaiak IV; Patxi Uribarren: *Euskararen eta euskaltzaleen historia bizi bezain ezaguna* (elkarrizketa), 57-92 orr.

- KLASIKOAK -1912: Miguel de Unamuno, *del sentimiento trágico de la vida*; euskaratzailea: Xabier Kintana Urriaga: *bizitzaren sendimendu tragikoa*, Bilbo (1994); berrikuslea: Frantzisko Uribarren Leturiaga

Komunikabideetan argitaratutako idazlanak

- Zenbait idazlan txiki Aramaioko TXIRRITOLA egunkarian
- Zenbait idazlan (norberaren izenean eta lankidetzan) *Egunkaria* eta *Berria* egunkarietan eta elkarrizketa bat *Mahatsondo* aldizkarian

Beste zenbait argitalpen

Gozoz

Karmeldar ikasleak euskaraz trebatzeko sortutako aldizkariaren sortzaile, zuzendari eta inprimatzailea izan zen, idazlan hauek argitaratuz:

- **1965:** *-Eleixa Jaungoikoaren erria*; 1. zk. (23-26 orr.); *Iru egi* –ipuina-; 1. zk. (28-30 orr.); *-Karmengo eskapularioa*; 2. zk. (15-24 orr.).
- **1966:** *-Kristau alkartasuna*; 3. zk. (37-46 orr.); *Ezkontza*; 4. zk. (13-18 orr.); *Elkar-izketa* (Lino Akesolori eliz testuei buruz); 4. zk. (I-XIII).
- **1967:** *-Pakea, anaitasuna, aurreratzea*; 5. zk. (7-16 orr.); *Elkar-izketa*; 5. zk. (53-61 orr.); *Aita Lino Akeosolo'gaz* (53-57); *Joseba Arrieta'gaz*; 58-61); *Jakitekoak*; 6. zk. (43-51 orr.); *Teologi ikas-maillak Deusto'ko Unibersidadean* (43-47); *Euskal eskolak* (48-49); *Umeen antzerki-jaiak*: (50-51).
- **1968:** *-Iritxi eta barri batzuk*; 5. zk. (41-64 orr.); *Euskarazaleak* (41-42); *Euskara Araban* (43-45); *Erabagi zuzen bat* –Aramaiokoa- (45-46); *Euskaldunon nortasuna* (46-48); *Zer egiten dozu euskararen alde?* (48-50); *Ama Lur* –pelikula- (50-51); *Gure euskarako eskolak* (51-52); *Gaur eguneko euskal abeslariak* (52-57); *Euskal Jakintsuen batzar bi* (60-62); *Deusto'ko unibersidadeko barri* (63-64)

KARMEL (Bibliografia osoa: 1931-2007)

Karmel 2008-3, 263. zenb.

1. Iritzi, ikerketa, dibulgazio lanak

- «Administrazioa eta euskara (1)», *Karmel* 1989-3, 46-64.
- «Administrazioa eta euskara (2)», *Karmel* 1990-2, 69-90.
- «Administrazioa euskalduntzeari buruz zenbait gogoeta», *Karmel* 1988-3, 25-27.
- «AEK Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakundearen defentsan», *Karmel* 1989-1, 46-55.
- «Aita Aureliano Landeta Azkueta (Basauri-1887 – India-1963)», *Karmel* 2000-4, 72-77.
- «Aita Emiliano Barandiaran. Itzulpengintza», *Karmel* 2004-2, 143-175.
- «Aita Frai Bartolome Santa Teresaren "Idazlan Guztiak"», *Karmel* 2000-3, 12-25.
- «Aita Jose Luis Beobide Olivares», *Karmel* 2000-3, 26-40.
- «Amnistia, Foruak, Ikurriña eta...», *Karmel* 1976-3/4, 45-53.
- «Araba'ko Diputazioa esnatzen», *Karmel* 1976-2, 75-78.
- «Aramaio Araba ote da?», *Karmel* 1975-2, 52-57.
- «Aramaio'n euskera noiz arte?», *Karmel* 1975-1, 38-43.
- «Aramaio-ko herria burzia jasotzen», *Karmel* 1977-1, 69-73.
- «Ba ote daukagu euskaldunok euskara hutsean bizitzeko eskubiderik?», *Karmel* 1989-4, 53-62.
- «Balentin Enbeitari omenaldia Bilbon (1983.eko Maiatzaren 29an)», *Karmel* 1983-2, 53-63.
- «Baserriak eta baserritarrak», *Karmel* 1974-3, 41-48.
- «Bateginik», *Karmel* 1988-2, 27-30.
- «Bibliako testuen itzulpenak Frai Bartolomeren lanetan», *Karmel* 1999-1, 252-269.
- «Bide gurutzean norantz?», *Karmel* 1978-2, 9-11.
- «Bizkaiko jaurreriko udallerriak», *Karmel* 1983-3/4, 42-46.
- «Dei garrantzitsu bat...», *Karmel* 1976-2, 65-66.
- «EAEko euskararen legearen 25. urteurrena», *Karmel* 2007-4, 3-22.
- «Egin bideak bakeari», *Karmel* 2005-3, 46-49.

- «Egunkaria aurrera», *Karmel* 2003-1, 5-18.
- «Erljio-hiztegia», *Karmel* 1987-4, 86-90.
- «ESKOLA HIZTEGIA. Oinarrizko hiztegia», *Karmel* 2005-1, 104-113.
- «Eskola-Hiztegia. Irudiduna», *Karmel* 1991-4, 81-91.
- «Espirituzko biziera E. Steinen ikuspegiz», *Karmel* 1998-3, 135-142.
- «Europar Herrietako Oinarrizko Kristau Elkartearen III. Kongresua (Bilbon, Urriaren 8tik 11ra)», *Karmel* 1987-3, 64-72.
- «Euskal diputazioak zertan?», *Karmel* 1976-2, 21-23.
- «Euskal Herrian zehar harribitxi bila», *Karmel* 1984-1/2; 15-26.
- «Euskal Herriko euskara maixu-maistren eskola unibertsitarietan», *Karmel* 1977-2, 67-78.
- «Euskaldun baten pozak eta penak», *Karmel* 1981-3, 57-64.
- «Euskaldunok euskaraz eta kito!», *Karmel* 1986-1, 50-61.
- «Euskalduntzeari buruzko zenbait gogoeta», *Karmel* 2003-2, 3-16.
- «Euskalerrria pinu-arogan», *Karmel* 1976-1, 59-64.
- «Euskalkia eta administrazioa», *Karmel* 2002-2, 14-34.
- «Euskalkiak aztertzeko egunak heldu ote?», *Karmel* 1981-2, 53-65.
- «Euskalkiei buruzko gogoeta batzuk (bizkaiera bide berri bila)», *Karmel* 2003-3, 33-56.
- «Euskaltzaindiaren 75. urteurreneko kongresua», *Karmel* 1994-4, 112-122.
- «Euskaltzaindiaren arauen laburpena», *Karmel* 1997-1, 10-25.
- «Euskaltzaindiaren Biltzar irekia Okendon J. P. Ulibarriren omezez», *Karmel* 1975-4, 61-64.
- «Euskaltzaindiaren nazioarteko XV. biltzarra euskalgintza XXI. mendeari buruz (2001-IX-17/21)», *Karmel* 2001-4, 28-36.
- «Euskara ateka larrian ote?», *Karmel* 2000-1, 33-44.
- «Euskara Batu-Euskalkiei buruzko Eibarko Ihardunaldiak», *Karmel* 1985-1, 17-22.
- «Euskara Bilbon», *Karmel* 1991-2, 33-60.
- «Euskara diskriminatzaile ala diskriminatua?», *Karmel* 1985-3, 67-74.
- «Euskara eta Administrazaoa: gogoeta batzuk», *Karmel* 1994-1, 20-28.
- «Euskara euskaldunon hizkuntza (1)», *Karmel* 1977-3, 39-45.
- «Euskara euskaldunon hizkuntza (2)», *Karmel* 1977-4, 30-36.
- «Euskara euskaldunon hizkuntza (3)», *Karmel* 1978-1, 49-55.

- «Euskara euskaldunon hizkuntza (5)», *Karmel* 1978-4, 44-50.
- «Euskara euskaldunon hizkuntza (IV)», *Karmel* 1978-3, 77-84.
- «Euskara irakaskuntzan», *Karmel* 1979-1, 47-52.
- «Euskara, euskaldunon hizkuntza», *Karmel* 1979-2, 40-51.
- «Euskara, euskaldunon hizkuntza», *Karmel* 1979-3, 45-52.
- «Euskara, euskaldunon hizkuntza: “Euskal Herrian Euskaraz” Elkar-teen aurkezpena», *Karmel* 1979-4, 69-75.
- «Euskara, euskaldunon hizkuntza: “Euskara batuari buruzko filosofia”», *Karmel* 1980-1, 41-53.
- «Euskara, euskaldunon hizkuntza: Adineko pertsonen euskaldun-tzeari buruz zenbait jakingarri», *Karmel* 1980-4, 73-80.
- «Euskara, euskaldunon hizkuntza: Euskara eta alderdi politikoak», *Karmel* 1980-2, 63-75.
- «Euskara, euskaldunon hizkuntza: Ingurutako gertaera batzu azter-tzen», *Karmel* 1981-1, 81-93.
- «Euskara, euskaldunon hizkuntza: Zenbait euskal irakasle Israele-ra», *Karmel* 1980-3, 65-74.
- «Euskararako Hiztegia», *Karmel* 1986-3, 34-44.
- «Euskararako Hiztegia», *Karmel* 1987-1, 100-104.
- «Euskararako Hiztegia. Oinarrizkoa», *Karmel* 1991-1, 71-79.
- «Euskararen erabilpena arauzkotzeko oinarrizko legea. Urtebetea-ren buruan zer?», *Karmel* 1983-3/4, 73-86.
- «Euskararen pozak eta penak», *Karmel* 2003-4, 37-54.
- «Euskararen Unibertsoari buruzko jardunaldiak (Donostia: 1997-III-7/8)», *Karmel* 1997-1, 93-104.
- «Extradizioei buruz zenbait gogoeta», *Karmel* 1984-3/4, 59-68.
- «Gabirel Jauregi uribarren idazlearen mendeurrena (eginiko ome-naldi ezberdinak)», *Karmel* 1995-3, 95-100.
- «Garizuma ez badugu ere, gogoeta garaia», *Karmel* 1994-3, 8-22.
- «Gazteak eta gabonak», *Karmel* 1982-2/3/4, 27-35.
- «Gazteak eta gaurko gizartea», *Karmel* 1982-1, 21-30.
- «Giza eskubideen aldeko burruka (Nazio Batuen Elkargoaren 40gn. urtea)», *Karmel* 1985-4, 52-60.
- «Gizon langile bateri azken-agurra», *Karmel* 1975-3, 54-55.
- «Hitz elkartuen osaketa eta idazkera», *Karmel* 1992-4, 49-56.

- «Hizkuntz eskubideen deklarazio unibertsala», *Karmel* 1998-2, 52-75.
- «Hiztegia 3000», *Karmel* 1995-4, 46-51.
- «Homiliak», *Karmel* 1994-1, 82-85.
- «Ikastolek antolatutako symposiuma eta Korrika. Bi egintza garrantzitsu», *Karmel* 1987-2, 33-41.
- «Irakaskuntza ote euskararen salbamena?», *Karmel* 1982-2/3/4, 49-67.
- «Irakasle kaleratuak hamar urte luze unibertsitateko atean euskal unibertsitatea eskatzen», *Karmel* 2002-2, 63-68.
- «Iruzur historiko bat», *Karmel* 2005-3, 56-77.
- «Itzulpenari buruzko nazioarleko lehen ihardunaldiak, Bartzelonako Unibertsitate autonomoan Karmel 1992-IV-6/10», *Karmel* 1992-2, 17-24.
- «Jaialdi berezi bat», *Karmel* 1975-4, 58-60.
- «Jakintza bideetatik», *Karmel* 1974-4, 40-45.
- «Korrika... Noiz arte?», *Karmel* 1993-2, 34-47.
- «“Korrika” gogoeta bide», *Karmel* 2001-2, 38-45.
- «Kukuak jotzean diruak aldean», *Karmel* 1975-3, 46-52.
- «Lisieux-ko Teresa “Jainkoaren txiroa”», *Karmel* 1996-3/4, 143-164.
- «Lore jokoak Aramaion», *Karmel* 1999-4, 68-88.
- «Luis Baraiazarra Txertudi idazle meñakarrak jaso zuen Bilboko liburu azokaren 2006ko “Urrezko luma”», *Karmel* 2006-3, 12-36.
- «Mintzagaia eta galdegaia», *Karmel* 1986-4, 37-54.
- «Noemi Shtuler israeldar irakaslearekin elkarrizketa», *Karmel* 1980-4, 81-85.
- «Noiz izango ote euskararen txanda?», *Karmel* 1987-4, 32-40.
- «Nola joka Euskal Herria euskalduntzeko?», *Karmel* 1982-1, 59-68.
- «Odon de Apraiz euskal idazlearen omenaldia», *Karmel* 1977-1, 82-86.
- «Pedro Pujana Agirregabiria (Oletan jaiot. 1915-VI-28 – Begoñan hil: 2001-II-4)», *Karmel* 2001-2, 3-21.
- «Pedro Pujana Agirregabiria Bilboko liburu-azokaren “Urrezko luma”, 2000-VI-7», *Karmel* 2000-4, 24-36.
- «Santutxuko Euskal Eskola 25 une lanean», *Karmel* 1991-1, 52-56.
- «Sinonimoen hiztegia – antonimoduna (Adorez-8)», *Karmel* 1999-3, 110-115.
- «Toponimia [Aramaion]», *Karmel* 1995-1/2, 277-323.

- «Torturarik ez, inoiz eta inon», *Karmel* 2006-1, 71-81.
- «Txoria bazina zer egingo zenuke?», *Karmel* 1983-2, 17-23.
- «UEMA-udalerrri euskaldunen mankomunitatea (EUMAeguna Aramaion maiatzaren 5ean)», *Karmel* 1996-2, 31-41.
- «Unibertsitateko arazo luzea», *Karmel* 1993-1, 105-114.
- «Urkiolako parke naturala», *Karmel* 1997-4, 85-103.
- «Urrats berri bat», *Karmel* 1977-1, 3-4.
- «XVIII. gogoeta astea oharrizen euskara hutsean. Fedea, sinisgarria eta bizigarria da», *Karmel* 2002-3, 75-91.
- «Zenbait gazteren eritziak», *Karmel* 1992-3, 23-41.
- «“Bostak Bat” lantaldea 25 urte euskararen alde lanean euskal lexikologia aztertzen», *Karmel* 2088-1, 3-17.
- «Sabin Salaberri Urzelai (pertsonea, bizitza, lana)», *Karmel* 2008-2, 121-141.
- «Euskara-gaztelania. Gaztelania euskara. Adorez Hiztegiak», *Karmel* 2009-4, 87-104.
- «Gazteak, Aisialdia eta Euskara (Euskaltzaindiko Jagon Sailaren Jardunaldiak)», *Karmel*, 2010-4, 21-37.

2. Itzultze-euskaratze lanak:

- Ik. EGIDO LOPEZ, Teófanos, «Gurutzeko Joan Donearen biografia laburra», *Karmel* 1990-3/4, 155-166. Euskaratzailea: Uribarren Leturiaga, Patxi.
- Ik. GONZALEZ, Arantza, «Edith Steinen pentsamendu filosofikoa», *Karmel* 1998-4, 38-48 (Itzult.: Patxi Uribarren).
- Ik. IBARMIA, Patxi, «Eliza nire ama maite dut», *Karmel* 1996-3/4, 111-114 (Itzult.: Patxi Uribarren).
- Ik. IMHOF, Paul, «Loiolako Inazio (1491-1556), kronika biografikoa», *Karmel* 1990-3/4, 167-177. Euskaratzailea: Uribarren Leturiaga, Patxi.
- Ik. MARCUELLO NAVARRO, Vicente, «Loiolako Inazioren nortasuna», *Karmel* 1990-3/4, 223-230. Euskaratzailea: Uribarren Leturiaga, Patxi.
- Ik. PACHO, Eulogio, «Gurutzeko Joan Donea eta bere idazlanak», *Karmel* 1990-3/4, 131-146. Euskaratzailea: Uribarren Leturiaga, Patxi.
- Ik. PLAZAOLA ARTOLA, Juan, «Inazio Donearen ikonografia Euskadin», *Karmel* 1990-3/4, 351-366. Euskaratzailea: Uribarren Leturiaga, Patxi.

- Ik. UNZUETA ETXEBERRIA, Antonio, «Euskarazko atalak Arantzazuko Andra Mariari buruzko liburu ezezagun batetan», *Karmel* 1993-1, 3-14. Euskaratzailea: Uribarren Leturiaga, Patxi.
- Ik. ZUAZUA, Damaso, «Santa Teresa Jesus Haurrarena misioen zaindარი», *Karmel* 1996-3/4, 129-141 (Itzult.: Patxi Uribarren).
- Ik. UNZUETA ETXEBERRIA, Antonio, «Frai Juan de Zumarraga», *Karmel* 1992-4, 14-32. Euskaratzailea: Uribarren Leturiaga, Patxi.

3. Lankidetzan eginiko lanak:

- Ik. URKIZA TXAKARTEGI, Julen - URIBARREN LETURIAGA, Patxi, «Margarita Maria López de Maturanana. Bilboko Santiago katedralean lehenengo beatifikazioa», *Karmel* 2006-4, 102-121.
- Ik. URIBARREN LETURIAGA, Patxi - AULESTIA, Gotzon, «Gotzon Aulestia (1940-2003)», *Karmel* 2003-2, 36-47.
- Ik. URKIZA TXAKARTEGI, Julen - URIBARREN LETURIAGA, Patxi, «Aita Eliseo (Sebastian Lejarza Gorostiza, 1919-2006) (Kultur ekintzailea)», *Karmel* 2007-1, 12-23.
- Ik. URKIZA TXAKARTEGI, Julen - URIBARREN LETURIAGA, Patxi, «Karmel Mendia eta Karmeldarrak, Erregelaren 8. mendean», *Karmel* 2007-3, 46-82.
- Ik. URKIZA TXAKARTEGI, Julen - URIBARREN LETURIAGA, Patxi, «Aita Juan Bizente Zengotita-Bengoa (1862-1943). Bere heriotzearen 50. urteurrenean», *Karmel* 1993-4, 70-78.
- Ik. URKIZA TXAKARTEGI, Julen - URIBARREN, Patxi - ARRIZABALAGA, J. M^a, «Edith Stein-en kronologia», *Karmel* 1998-3, 6-13.
- Ik. URKIZA TXAKARTEGI, Julen - URIBARREN, Patxi, «Edith Stein: Auschwitz-etik altaretara. Kanonizazioaren kronika», *Karmel* 1998-4, 75-102.
- Ik. URKIZA TXAKARTEGI, Julen - URIBARREN, Patxi, «Edith Steinen testamentua», *Karmel* 1998-3, 130-134.
- Ik. URKIZA TXAKARTEGI, Julen - URIBARREN, Patxi, «Euskara euskaldunon hizkuntza nazionala», *Karmel* 2001-3, 3-27.
- Ik. URKIZA TXAKARTEGI, Julen - URIBARREN, Patxi, «Frai Bartolomeren Euscal-errijetaco olgueeta... liburuaren argitaraldien nondik norakoa», *Karmel* 1998-2, 91-101.

- Ik. URKIZA TXAKARTEGI, Julen – URIBARREN, Patxi, «Gabirel Jauregiren bizi-tza», *Karmel* 1995-1/2, 71-104.
- Ik. URKIZA TXAKARTEGI, Julen – URIBARREN, Patxi, «Orain dala 50 urte Euskal Herrian Karmengo eskapularioaren 700. mendeurrena ospatzen», *Karmel* 2001-2, 77-92.
- Ik. URKIZA TXAKARTEGI, Julen – URIBARREN, Patxi, «Santa Teresaren ezagutza eta eragina», *Karmel* 1997-3, 88-119.

KARMEL SORTAN: (itzultzaile-euskaratzailea)

- URKIZA TXAKARTEGI, Julen, *Karmeldarrak Markinan (1691-1991) Historia eta agiriak*. (1992) 497 orr. Euskaratzailea: Patxi Uribarren
- UNZUETA, ANTONIO, Fr. Jose Jesus-Mariarena (Jose Arakistin, 1700-1764) IDAZLANAK, *Karmel* Sorta, 10 (1997) 231-333; euskaratzailea: Patxi Uribarren.
- TERESA LISIEUXkoa, *Idazlan guztiak*, *Karmel* Sorta, 8 (1996); Patxi Uribarrenek itzuliak: *Azken elkarrizketak* (879-1067 orr.); baita *Aurkezpena* eta *Hitzaurrea* ere, 11-18. orr.